

ERREPORTAIA: ZER DIRA ALDI BATERAKO LAN ENPRESAK?

Arrasate

1995eko
Abenduak 22
301. zenb.

P R E S S

KULTURA

Juan Ignacio
Montianoren
lehen nobela

KIROLAK

Erik Martin
Euskadiko
Karate
Txapelduna

IRITZIA

Javier
Rz. de Munain
"Harreman"
proiektuaz

Olentzero
etorri
zaigu





**Jai
zoriontsuak
opa
dizkizuegu
eta Urte Berri
On!**

TAILERRA ETA ERAKUSKETA

**Araba Etorbidea, 3
(Eskatu pabilioia)
ARRASATE
Tfnoa: 79 05 86**

TAKOLO AUTOAK

S. Carrascal S. L.



Bertan egindako

- **Sukalde altzariak**
- **Armairu enpotratuak**
- **Trastelekurako armairuarak**
- **Etabar**

Fabrian erakusketa: Gipuzkoako Etorbidea, 6-1 A. Tfnoa/Faxa: 79 01 82

Atzoko eta gaurko Santamasak

Denboraren ondorioz ez dira hain garbi ikusten iraganaren irudiak eta gauza bera gertatzen da jaiekin, nahiz eta gaur ospatzen duguna joandako denboraren argazki finkoa iruditu. Santamasetako feria aspaldikoa da, historialariek diotenaren arabera ospe handiakoak ziren 21, 22 eta 23an Mondragoen ospatzen ziren festak. 1351. urtean Gaztelako Pedro I.a Erregeak pribilegio berezia eman zezake baimendu zituen.

Feria San Balerio ermitan burutzen zen, Udalaizteko meatzak zirela eta ekonomia munduan garrantzia zuen tokian, harremanetarako eta ospakizunetarako toki egokia. Ermita hau San Balerion ohorez eraiki zuten, Zaragozako gotzaia izan ondoren bertatik bidali zutena, Euskal Herrian kristautasunaren lehen ebangelizatzaileetarikoa izatearen ustezko pribilegioa ezartzen zaiona. Egia izan edo ez, San Balerio auzoan, Kanpazar mendaterako bidean kokatuta, Arrasate ondoan, inguruko ferialariak biltzen ziren, horrelako jai-egutegiarekin ondo ederki pasatzen zutenak alegia. Feriaz gozatzeko era lasaia, gaua egunarekin bat egiteko gaur egungo presazko hedonimoaz kontrastatuz.

1727ko Villafrancako Batzar Orokorretan erabaki zen mendialdean burutzen ziren feriak berezko jurisdizioa zuten herrietara eramatea.

Orditik aurrera, aldatu zen feria tokiz, Portaloiko arboladira, Monte tabernaren aurrera. Hor erakusten ziren behiak eta txerriak, "Sekostietan", gaur egun Lasagabaster denda dagoen tokian. 1926an Udalak erabaki zuen, zikinkeria eta beste arazo batzuk medio, feria erdialdetik Uharkape aldera eramatea, sekula baino dotoretasun gehiago lortuz. Feria, baserri-tar eta abereekin, animazioz eta tratuz igarotzen zen; kanpotarrez betetako eguna,

parerik gabeko Santamas feriaren adora-tzaile.

Denboren arabera mugitu beharrak, erromeria eta dantzaldiak ere toki desberdinetara eramaten ditu. Idazleak Garibai kalean entzuten ziren trikitixen martxaren Biteriko jardinetarako labantzea bizi izan du, kale hau Kontzezinoan bukatzen zenean, gaur egun etxeorratza dagoen tokian.

Eguerdia arte lan egiten zen, egun osoko jairik ez, eta jendea baserri-tarrek erdi-zabalik zuten jaietan sartzen zen, eta hauek, euren denboraren jabe izatearren, bai egiten zutela egun osoko jaiak.

Erromeria girotzeaz soinu-joleak arduratzen ziren, bakoitza ahaleginak egiten bere bezeroak inguratuz. Konpetentzia garbia zen, epaile barik, sari barik. Garaipena morala bakarrik zen, artista bakoitzaren inguruan bildutako dantzari kopurua.

Arratsaldeko 8etan, baserri-tarrek, ohiturari jarraituz, etxerako bidea hartzen zutenean, aide zabaleko erromeria bukatzen zen, eta beraien bateriak orduan Berdura enparantzako bigarren pisura eramaten ziren, gaurko Sebero Altube plaza. Itxitako lokal batean "dancing"-a egiten zen antzekoa zen, salafiestasen eta diskoteken moda berriaren aztarna, baina suabeto-xoagoa, erritmo lasaia, ametsetako musika, erlajaziorako ona.

Lehiaketak, bai barazkienak eta baita abereenak ere, gaur egungoak dira, tentsio baten barruan bizi den gizartearen adierazle, baita jaiekin ere. Badirudi bapatekotasunaren xarma galdu dela, jolasa eta jaiaren presentzia, ihes egiten duen sari baten beharra sentitu barik. Erosotasuna estutasunaren aurrean, lasaitasuna presaren aurrean. Hori zen atzoko Santamasak, eta hobe litzateke gaurkoak eta biharkoak ere hortik joatea.

JESUS LARRAÑA



Alkoholarekin arazoak daukazazu?
Agian,
"Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

Memesa
79 42 22




ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurerriaren Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egues. **Publizitateak:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoia, Haritz Larrañaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Ixe-Ixe komiki taldea. **Banaketa arduraduna:** Javier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).




ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

Azala: Golo Arana

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



LOGOPEDIA
ZENTRA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.


Tfnoa: 79 26 99

Eskerrak

HIES Ekimenak eskerrak eman nahi dizkio Euskadiko Kutzari bere Gabon sariagatik -475.000 pta-, urteberriaren aurrean ezinbestekoak gasolina depositoa betetzeko.

Eskerrik asko.

HIES EKIMENA



**Giza eskubideak,
non eta
norentzat?**

A benduaren 10a "Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna" izan zen. Jende askori 3. mundua deitzen diren herrialdeetan ematen diren bortxaketak etortzen zaizkio burura.

Baina zeintzu dira bortxaketa hauek? Hasteko, hor daukagu guda zikina eta GALen Estatu terrorismoa, 30 erahilketa baino gehiago dituztela bere gain.

Hemen torturatzen da: hori adierazten dute atxilotuek ezarritako salaketak. Kasu puntaletan torturazaleak epaituak izan dira, gero indultatuak izateko. Kasu batzuk, Amnesty International-engatik salatuak izan dira. Ad: Kepa Urria, 92an. Batzuk, hilotz atera dira bertatik: Zabaltza (85ean), Gurutze Iantzi eta Txato (93an)... bestetan tiro bat emanez erahil dituzte: Lutxi Urigoitia, Jon Lizarrald, Susana Arregi, etab.

Estatu hauetako espe-

txeen bizi-baldintzak Errepublikan bananero batenak dira. Egoera gogorragatik bere burua hil (Jean Groix, Paris 93an) eta ez-asistentzia sanitarioagatik hil (Mikel Zalakain, Martutene 90ean; Peio Mariñelarena, Paris 93an) edo ia hilzorirarte utzi (Jabi Gorostiza, Herrera 94an). Baina oraindik ez dute 60. artikulua aplikatzen eta barruan oso gaisorik dauden presoak daude (Iñaki Mendiguren, Pilar Ferreiro...) edo kondenaren 3/4ak kumplitua duten eta kalean egon beharko luketen ia 100 presoak: Pedro Guridi, etab.

Espetxeetan presoan aurkako jipoiak (Jon Etxeandiarri Malagan orain dela egun batzuk emandako izan da azkena), isolamendua... ematen dira, baina umilazio guzti hauek posibilitatzen duena legez kontrakoa den dis-pertsioa edo sakabanaketa da, legearen arabera preso-

ak Euskal Herrian egon behar zirelarik. Orain Sevillan, bi aste dela Tenerifen bezala, bizi-baldintza minimo batzuen eske gose greban daude; hemen ere hilzorirarte utziko dituzte direktoreak pribilegio hauek beteko dituela, zin egin arte?

Ikusten denez, eta kalean gorpu polizialak erabiltzen duten errepresio basatian (Rosa Zarra erahila Donostian 95an) murgiltzeko lekurik gabe, bi estatu hauetan autodeterminazio eskubidearen alde daudenek jasaten dituzten giza eskubideen aurkako ekintzak oso ugariak dira; beraz bi estatu hauek giza eskubideen alde sinatutako konbentzioak, "Lehen mundu okzidental eta demokratiko" honen itxurakeria bat besterik ez dira.

**ARRASATEKO
AMNISTIAREN ALDEKO
KOMITEA**



Irakurleei

Jau! ez zorionik eta ez bakerik Euskal Herriaren Askatasuna lortu arte. Jo ta ke bai Espainiako eta bai bertako zapaltzaileak alde egin arte! Eta mota guztietako borrokalariarentzat 96ak zorte eta zoriontasun ugari ekar dezala. Tenerifeko espetxe-ko preso Elurtzurik.

JON AGIRRE



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25




MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

Zer eskatuko diozu Olentzerori aurten?



Jose Miguel Vara
Ikaslea
(17 urte)

Olentzerori dirua, osasuna eta bizitza ona eskatuko dizkiot eta kurtsoa aprobatez ere bai.



Rosi Rodriguez
Garbitzailea
(24 urte)

Ja, ja! ez dakit. Auto bat eta Gabonetako loteriaren saria eskatuko dizkiot. Dena dela ez dit ezer ekarriko.




Mari Jose Zeziaga
Langilea
(29 urte)

“Cifras y letras” jokua eskatuko diot. Hori da eskatu dudana, benetan. Eta zer gehiago... dirua eta pakea.



Danel Etxagibel
Ikaslea
(2 urte)

Ez dakit. Jostailu asko: eskailerak, trena, Patxi panpina, kotxe bat eta kamioi bat.




Andoni Lazpita
Ikaslea
(21 urte)

Nik Olentzerori ez diot ezer eskatu, ez dudalako beregan inongo sinesmenik. Dena dela, gauzak aldatzea eta hobeto izatea gustatuko litzaidake.



Marcelina Arregi
Jubilatua
(82 urte)

Olentzerori? Ba nik ez dakit. Osasuna eta bakea. Bakea eskatuko diot. Gauzarik ederrenak dira. Gehiago ez, ni konforme nago.



Jose Miguel Mendikute
Langilea
(35 urte)

Ez diot ezer eskatu behar. Zer eskatuko niokeen? Bakea, gehiena bakea eta lana danondako. Eta hauek edukita niretako diru pilo bat.



Juanjo Felix
Langilea
(35 urte)

Auto bat eta praka pare bat ere bai. Bakea ere eskatuko diot. Ezer ez gehiago.



Zure oinetakoak urte osorako doan!!

Oñati eta Bergarako **ALDASORO ZAPATADENDAK**, Gabon zoriontsuak opa dizkie bere bezeroei. Sasoi bakoitzerako oinetako pare bat eta hiru poltsa zozketatuko ditu bezeroen artean.

Zure erosketak urritik aurrera gure dendetan egin badituzu edo egun hauetan egiten badituzu bete txartela zure datuekin, laga dendan eta zozketan parte hartu ahal izango duzu. Zorte on!

Arratsaldeko 8,30ak arte zabalik!

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguatorialdea79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udalitzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 22
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

Larunbata 23
 Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.

Igandea 24
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

Astelehena 25
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

Asteartea 26
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

Asteazkena 27
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

Osteguna 28
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

22 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "My family" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **SENIDEAK-en ENKARTE-LADA**
 Goizeko 11etan, Arrano elkar-tearen parean.
- **SANTAMAS EGUNA**
 Arratsaldeko 7etan Larrain dantza eta txerri dantza herriko plazan. 7.30etan Incansables txarangarekin kalejira. 7.45etan bertso saioa Amaia antzokian. Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Imanol Lazkano, Iñaki Murua, Jokin Sorozabal eta Ainhoa Agirreazaldegi. Gai jartzaila: Jon Iñaki Izarzelai. Gauean Gozategi taldearekin dantzaldia Herriko plazan. 12etan txerriaren zozketa herriko plazan.

IGERITOKIA ITXITA

Abenduaren 23an igeriketa txapelketa jokatu behar denez igerilekua itxita egongo da ohiko erabiltzaileentzat.



ZABORREN GABONETAKO ORDUTEGIA

Abenduaren 24an eta 31an, gaueko 10etan beharrean, etxe-tako zaborra eguerdiko ordubata eta ordubiak artean atera behar da. Ordu aldaketak honako ibilbideetan izango du eragina: Arrasateko erdigunea, Kalealdea, Munar, Musakola, Makatzena eta Santa Teresa.

23 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Species" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **SANTAMAS JAIK**
 Goizeko 12etatik 2etara Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazokak disko berria sinatuko dute liburu eta disko azokan. 4etan Santamas Xake txapelketa Musakolako kiroldegian. 5etatik 7ak arte Txatxilipurdi elkarteak antolatuta Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoan emanaldia Amaia antzokian.
- **DIPOSITIBA EMANALDIA ARETXABALETAN**
 Cho Oyu eta Lothse espedizio-ko diapositiba emanaldia Iñurrategi anaien eskutik. Arratsaldeko 7.30etan Aretxabaletako Zaria zineman. Murruxiko elkarteak antolatuta.

• EGUNKARIA FESTA ANOETAN

Egunkaria festara joateko autobusa antolatu du AEDK. Autobusa 3.30etan Zaldibar pilotalekutik irtengo da. Prezioa 1.000 pta.

24 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Species" 5etan eta 7.30etan.
- **SANTAMAS JAIK**
 Arratsaldeko 5etan ipuin kontalari saioa Seber Altubeko Ludotekan. 7.30etan Olen-tzeroren agurra, Mutil dantza eta Herri dantza Herriko plazan.
- **OLENTZERO, TXORONPIO ETA TXORONPIA**
 Goizeko 11etan Txoronpio eta Txoronpia eta arratsaldeko 6etan Olentzero.
- **SENIDEAKEK ANTOLATUTA ITXIALDIA**
 24 orduko itxialdia Pleno aretoan arratsaldeko 7.30etatik hurrengo eguneko arratsaldeko 7.30ak arte.
- **MANIFESTAZIOA**
 "Euskal presoak Euskal Herri-ra" lemapean. Arratsaldeko 8etan. AABak antolatuta.

SANTAMAS ARGAZKI LEHIAKETA

Zuri beltzean edo koloretan. Formatua gutxienez 18 X 24 eta gehienez 30 X 40. Argazkiak 30 X 40ko kartulinaran aurkeztu behar dira eta partehartzaile bakoitzak gutxienez 3 argazki eta gehienez 5 aurkeztu behar ditu. Gaia: Santamasak. Lanak urtarrilaren 9an aurkeztu behar dira Laso-Arregi, Epelde, Ikatx, losu edo Imagen argazki dendatan. Sariak: bilduma onenak 30.000 pta., argazki onenak 20.000 pta. eta bigarren bilduma onenak 15.000 pta. Antolatzailak: ASA elkarte eta Santamas batzordea.

25 ASTELEHENA

• **ZINEA**
 "Species" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **GABON EGUNA**

• **KONTZENTRAZIOA**
 Euskal Herria Askatu-k antolatuta. Arratsaldeko 7.30etan, Herriko Plazan.

SAN ANDRES HERRI ESKOLA ZOZKETA

San Andres herri eskolak errifa batzuk atera zituen eta Gabonetako otarraren zenbaki saritua hauxe izan da: 0 0 4.

MANIFESTAZIO NAZIONALERAKO AUTOBUSAK

Abenduaren 31n. Manifestazio Nazionala burutuko da Bilbon, "Euskal presoak Euskal Herrira" lemapean. Arrasateko autobusak antolatu dira. Txartelak Irati eta Etxerat tabernetan eros daitezke.

KANPOSANTUAK ZABALIK

Abenduaren 23 eta 30ean egun osoan izango dira zabalik Arrasateko hilerriak.

3. ADINEKOEI LAGUNTZEKO IKASTAROA

Astelehen eta ostegunetan goizeko 9.30etan hasita. Ikastaroa urtarrilaren 15ean hasiko da. Informazio gehiagorako deitu 79 04 59 zenbakira. Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak antolatuta.

26 ASTEARTEA

• **ZINEA**
 "Species" 7etan eta 9.30etan.

• **ENKARTELADA**
 Senideak-ek antolatuta. Arratsaldeko 7etan.

• **EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK MAHAINGURUA**
 Antzuolako Idolaz taldeak antolatuta Euskara Batua eta Euskalkiak gaiaren inguruan mahaingurua arratsaldeko 7etan Udaletxeko areto nagusian. Partaideak: Gerardo Elortza, Juan Luis Goikoetxea, Xabier Kintana eta Jon Sarasua. Moderatzailea: Arantzazu Loidi.

• **FUTBOLAREN INGURUKO MAHAINGURUA**

Gaia: futbolak azken urteotan izandako aldaketa. Hizlariak: Bittor Alkiza, Agustin Aranzabal, Periko Alonso, Xabier Azkargorta eta Luis Garmendia. Moderatzailea: Pedro Mari Goikoetxea. Migel Altuna institutuko aretoan arratsaldeko 7.30etan. Berrigarak antolatuta 5. urteurrena ospatzeko.

KABALGATA KOMISIOKO OHARRA

Urtero bezala, Errege kabalgata prestatzen ari dira eta horregatik jendearen laguntza behar dute. Hori dela eta, antortxero lanetan parte hartu nahi duten guztiei abenduaren 27an San Viator ikastetxeko jolastokira joateko deia egiten zaie.

27 ASTEAZKENA

• **TRIPTIKOEN BANAKETA**
 Azokan, goizean zehar. Amnistia-aren aldeko Batzordeak antolatuta.

• **INFORMAZIO LOKALARI BURUZ MAHAINGURUA**

Gaia: Informazio lokala komunikabide handietan. Partaideak: Julian Beloki, Martin Garitano, Elisabete Garmendia, Alberto Gorritiberea eta Martxelo Otamendi. Moderatzailea: Migel Angel Elkoro-berezibar. Migel Altuna institutuko aretoan arratsaldeko 7.30etan. Berrigarak antolatuta.

28 OSTEGUNA

• **KONTZERTUA BERGARAN**
 "Deabruak teilatuan" eta Xabier Montoyak kontzertua eskainiko dute Bergarako gartzela zaharrean gaueko 10etan. Sarrera: 400 pta.

• **MUSIKARI BURUZKO MAHAINGURUA**

Gaia: Euskal musikaren bilakera azken urteotan. Partaideak: Mikel Markez, Exkizu taldeko Alex, Su ta gar-eko Norton, Maixa eta Itziar eta Sorotan Bele taldeko Goroka. Moderatzailea: Joseina Etxeberria. Migel altuna institutuko aretoan arratsaldeko 7.30etan. Berrigarak antolatuta.



BADATZ OLENTZERO, TXORONPIO ETA TXORONPIA!

Igandean Txoronpio eta Txoronpia etorriko dira arrasatera goizeko 11etan. Arratsaldeko 6etan berriz, Olentzero etorriko da bisitari. Olentzero urtero bezala opari mordoarekin etorriko da arrasatearren artean banatzeko.

LAUBIDKO GARAJEEN GABONETAKO ORDUTEGIA

Ostirala 22 eta larunbata 23 Laubideko garajea goizeko 8etatik goizaldeko ordubata arte egongo da zabalik. 24 eta 31an arratsaldeko 3etatik iluntzeko 8.30ak arte. Astelehenean 25ean, urtarrilaren batean eta urtarrilaren 6an itxita egongo da.

ARGAZKI ERAKUSKETA AITA MENNIN


Gaia: Euskal tradizioaren jaiak. Egilea: Alfredo Feliu Corcuera. Aita Mennin abenduaren 31a arte. Ordutegia: ostegunetan arratsaldeko 5etatik 6.30ak arte. Larunbat eta igandean 11etatik ordubata arte eta arratsaldez 5etatik 6.30ak arte.

Ezustekoz betetako plenoa

Gai zerrendan ez zetozen gaiak mahai gainera atera zirenez, ezustekoz betetako plenoa izan zen joan den ostiralekoa. J.M. Loitiren izenarekin agertutako paskinen agerpena salatzeke bozeramalean batzordeak hartutako erabakia gogoratu zuen Jimenok. Erabakian hurrengo plenoan paskinen agerpena gaitzetsiko zela esaten zenez, PSE-EEko bozeramaleak hori egitea eskatu zuen. Bozketan, HB abstenitu egin zen baina gainontzeko alderdiek ekingiza hura gaitzetsi zuten.

Plenoaren bukaera aldera, A-20 arearen inguruko gaia jarri zuen mahai gainean J.M. Loitik. Udalarekin zorretan dauden enpresarien auzia otsailera arte luzatzea, eta epe horretan akordioa lortzen saiatzea proposatu zuen jeltzaleak. Lege aldetik arazoak egon daitezkeela eta, proposamena mahaigainean geratu zen.

Bukaeran Amnistiaren aldeko batzordeko kideak sartu ziren pleno aretoan. Aurreko plenoan alderdi guztiek euskal presoen Euskal Herriratzea eskatuko zutela onartu zuten, hori



25. Urteurrena jai giroan

Zapatuko eguraldi ona lagun, jai giroan ospatu zuen Arrasateko Umezaintzak 25. urteurrena. Goizean umendako jolas parkea jarri zen Iturripeko frontoian eta eguerdian bazkaria egin zen Eskola Politeknikoan. Bazkarira hurbildu ziren 150 lagunek trikitilarien soinuarekin dantza egiteko aukera izan zuten bazkalostean.

eskatzeke zerbait egin duten galdetu zieten alderdiei. HBk eta EBak eurek egindakoaren berri eman zuten baina puntu hori hurrengo plenoan aztertzea erabaki zen.

Azkenean, Arrasateko Ertzantzaren eta Udaltzaingorearen artean koordinazio batzordea sortzea onartu zen.

Udal gobernuan jarraitzea erabaki

Ezker Batuko jarraitzaile-

ek onartu egin dute HBrekin udal gobernuan jarraitzea. Joan den ostegunean asanblada egin zen eta EBko bi zinegotziek jarraitzea proposatu ondoren, asanbladara hurbildu zirenek ere ahobatez onartu zuten.

Legealdi honetan aurrera eramane beharreko hainbat puntutan ados jartzea lortu dute HBk eta EBak, eta orain programa hori sinatzea falta da bakarrik. Asanblada hasi aurretik lortu zuten akordioa gobernuakideek.

Lehen saria Bergarara

Irantzu Lizarralde eta Xabier Egidazuk irabazi zuten V. binakako arin-arin eta fandango lehiaketa. Txapelketa domekan burutu zen Sebero plazan, eta ikusle asko hurbildu zen bertara. Partehartzaileak ederto aritu zirenez, herritarrekin osatuta zegoen epaimahaikideei asko kosta zitzaien lehen saria nori eman erabakitzea.

JAIOTZAK

- Julen Moron Sanz. Abenduaren 7an.
- Natalia Otxoa Sanz. 9an.
- Amaia Aranegi Berezibar. 11n.
- Jokin Amozarrain Altube. 14an.

EZKONTZAK

- Josu Muniozguren Gomez eta Clementina Uzkieta Iñiguez. Abenduaren 9an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Higinio Perez Perez. Abenduaren 13an. 77 urte.
- Carmen Agirre Artola. 15ean. 91 urte.
- Daniela Almaraz Vascones. 17an. 93 urte.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Nikela berreskuratzeke plana hasiko da Alejandro Altunan

IHOBEk, Ingurugiroaren gestiorako sozietate publikoak, "Metal Zero" izeneko proiektua jarriko du abian Arrasateko Alejandro Altuna enpresan. Proiektuaren helburua, erabili ostean hondakin gisa geratzen den nikela berriz ere erabili ahal izatea.

Orain arte, erabilitako nikela depuragailu batera pasatzen zen eta behin garbituta, zati bat errekaratu izuri eta hondakin gisa geratzen zena hondakinen tratamendurako biltegira eramaten zen. Prozesu hori indarrean dauden arabei jarraituz egiten den arren, zerrailagintzan diharduen enpresak haruntzago joan nahi izan du, eta IHOBEk proposatu dion plana onartu du. IHOBEk, berriz, plana hasteko eskatzen diren baldintzak A. Altunan betetzen direlako aukeratu du. Era horretan, estatuan Arrasatekoa izango da metal astunaren birziklapena egingo duen lehen enpresa.

Urtea amaitu orduko IHOBEk beharrezko tresnak eramango ditu eta planari hasiera emango zaio. Hondakine-



Arrasatekoa izango da metal astunaren birziklapena egingo duen lehenena.

atik aterako duten nikelaren %95a berreskuratuko da eta gainera, beste %5a berreskuratzeke proiektu pilotoa ere jarriko da. Urtean 1.500 kilo nikel berreskuratzea aurrakusi da.

Proiektu horrekin eta

ingurugiro alorrean aurrea eramaten ari den beste batzuekin, Jaurlaritzaren eta Mankomunitatearen plana ere onartu berri du eta, Europako ISO Ingurugiro ziurtagiria eskuratu nahi du enpresa arrasatearrak.

Gabonetako kontsumismoaren aurka

"Gabonak, kontsumismoa eta gehiegikeria" izeneko kanpaina aurkeztu zuen astelehenean EKIk. Ekologi taldeko partaideen ustez, Gabonetan neurri gabeko kontsumitzen da eta ondorioz, ekologiari kalte handia egiten zaio. Horregatik sentsibilizazio kanpaina hasi du EKIk eta Eroskiri gutun bat bidaliko dio, produktu ekologikoen salmenta bultzatzea eskatzeko besteak beste. Iaz Arrasateko Udalak Gabonetako argiterian 5 milioi gastatu izana ere salatu dute ekologistek.

Udalak bestalde, 73.000 pta. emango dio EKIr sentsibilizazio kanpaina aurrera eramateko.

Bakoitzari 2 milioi

Arrasateko Harremanek eta Askapena taldeei bi milioina pezeta eman die Udalak, hirugarren munduan garapen proiektuak garatzeko. Asteazkenean, Ongizate Sailak dirulaguntza eman zien taldeei, eta horiek hitzarmena sinatu zuten Udalarekin.

GABON HAUETAN
MULTIOPTICAS-
era ETORRI ETA
ERREGE BAT
BEZALA GELDITU.

1.ak
ZERBITZU
OPTIKOETAN

PREZIOA: 13.950

PREZIOA: 11.000

PREZIOA: 12.500

PREZIOA: 16.900

PREZIOA: 29.670

PREZIOA: 7.500

PREZIOA: 8.800

PREZIOA: 8.900

PREZIOA: 9.500

PREZIOA: 8.500

PREZIOA: 15.000

Eta gainera...

6 HILABETETARAKO UKIPEN
LENTEAK EROSTEAGATIK
TXAMARRA OLINPIKO HAU
OPARITZEN DIZUGU.

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

BERGARA ARRASATE ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta 2 - EIBAR - ☎. 100522

ESISZTENTZIAK
BUKATU ARTEKO
PROMOZIOA



Eskola publikoen proposamena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza herriaren erdialdean biltzea da.

Arrasateko eskola publikoek euren proposamena aurkeztu

Deba Garaiko irakaskuntza publikoko guraso eta irakasleen ordezkariak eta Bilguneko Eskola Kontseilukoak, asteazkenean aurkeztu zuten Jaurlaritzan eskola maparen inguruan egin duten proposamena. Arrasateko eskola publikoen proposamena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza herriaren erdialdean biltzea da, eta Aramaiokoena, berriz, euren herrian ematea. San Andres, Musakola, Erguin eta Aramaioko San Martin eskolako ikasleek DBHa Arrasateko Institutoan egitea proposatu zuten Hezkuntza Sailak. Eskola publikoek ez dute egoki ikusten ikasleak herriaren alde batera joan behar izatea, eta horregatik, baliteke erdialdean zentru bat egitea proposatzea.

Horrez gain, eskola publikoetako arduradunak ez daude ados Bilguneko Eskola kontseiluaren funtzionatzeko erarekin. Horregatik idatzi bat zuzendu dute Hezkuntza Sailera, Kontseiluaren partaidetza finkatzeko araudia Kontseiluak eta ez administrazioak egin beharko zuela salatuz. Eskola publikoetako arduradunek, gainera, ez dute begionez ikusten eskola maparen eztabaida prozesuan irakaskuntza pribatuko ordezkariak parte hartzea. Atera duten idatzian esaten denez, irakaskuntza publikoa desabantaila egoeran dago; irakaskuntza pribatuak Bigarren Hezkuntza ezartzeko baldintzak jarri dituen bitartean, eurek administrazioaren baldintzak jarraitu behar izan dituzte eta.

Maritxu Kajoi atera

Asteazkenean Errosario-ko Amabirjina jarri zuten San Juan Parrokian.

Maritxu Kajoi izenez ezagunagoa den irudia, ez dute ohiko tokian jarri, baina lehengo tokitik oso hurbil. Arrasaten hain ezaguna den irudia herriko plazari begira jarri dute, irudiaren dako egokitutako toki batean hain zuzen. Hori dela eta, hemendik aurrera Maritxuk kokaleku berria izango duela pentsa daiteke.

Besaiden lindane hondakina

Azaroan idatzi bat bidali zuten Jaurlaritzak Udalera, Besaideko isurtegiaren HCH edo lindane izenez ezagutzen den hondakina dagoela jakinaraziz. Ezertan hasi baino lehen, hori benetan horrela den eta hondakin horri buruzko adierazpen zehatzak eskatu dizkio Udalak Jaurlaritzari. Hala nola, hondakina zehazki non dagoen eta zein neurri har daitezkeen.

Lindanea pestizida toxiko bat da eta eragiten dituen gaisotasunen artean minbizia aipatu behar da batez ere.



Oraindik ez duzu erabaki aurten ingeleseko ikastaro batetan matrikulatzea?

Orain, CIMek gehiago ez itzaroteko aukera ematen dizu, **ASTERO 3 ORDUKO INGELES IKASTAROAN matrikulatuz.**

Mailak: Oinarrizkotik sakontzera
Kurtso hasiera: Urtarrilak 15
Matrikula epea: abenduaren 20ra arte

Oraindik denboraz zaude eta zure MATRIKULA DOHAINIK lortuko duzu izenematean lehenengo 5en artean bazaude, Gogoratu "Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago"

Araba Etorbidea, 4 - ARRASATE Tfnoa: 79 01 32 - 79 65 54

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

AGERIKO OPARIAK

Ora in, **kutxan** aurrezten baduzu, opari bat jasoko duzu. Edo bat baino gehiago.

Zatoz eta informa zaitez gure bulego guztietan irakur itzazu eskura daukazun liburuskak.

Eta, zer esanik ez, opariak agerian daude.

150.000 pta.ko ezarpena

"PIREX" azpila, labe eta mikrouhinerako, edo sukalde eta mahaiko "CUYFOR" 12 labanen jokoak.

350.000 pta.ko ezarpena

"CASIO" Walkman/Irratia AM/FM stereoak, edo Eguberritako Arbola, 1,50 m. apaingarri eta guzti. (Izakinak agortu arte. Argirik ez dauka)

500.000 pta.ko ezarpena

"ROLSER" eskailera/aulkitxo tolesgarriduna eta 12 funtziotako "JOHNLITE" linterna, edo "SOLAC" kafetera, 161 modeloa.

Sustapen honek P.F.E.Z.aren arauak jarraitzen ditu.



kutxa

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián



**Zorionak
Arrasate!
Urte berri on!**


Erdiko kale, 14 • ARRASATE

BENGOA

LURRINDEGIA • BITXITEGIA • OPARIAK

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!

Zerkaosteta, 5 ARRASATE
Tfnoa: 79 28 85



* **Francisco Javier
Ruiz de Munain**

Arrasate martxan dago

Ikustekoa da han nola bizi diren, zein baldintzetan, botika barik, eskola barik, oinarritzko zerbitzurik ez dutela... horrelaxe deskribatzen zidan Paco Alvarezek joan den asteen, Hegoamerikatik itzuli ondoren. Eta batek galdeztzen dio bere buruari: bertakook nola senti dezakegu han gertatzen dena ikusten dutenek sentitzen dutena? Arazo batzuren aurrean "beraien tokian" jartzen ahaleginduko bagina, uste dut egoera ulertzen hasteko moduan egongo ginatkeela.

Imajinatu infekzio bat duzula eta botikarik ez edukitzearen zabaldu egiten dela, edo eskolarik ez izateagatik zure seme/alabak alfabetatu gabeak direla, eta ez dezagun ezer esan zure alabak, zure amak edo zure anaiak gaisotasun larriren bat hartzen badute eta beraiei kasu egiteko sendagilerik ez dagoela.

Imajina dezakezu? Eta sentitu? ba hala eta guztiz ere, gure-tako amets gaizto bat besterik ez da, eta benetan sufritzen ari direnak han daude.

Hemen badugula nahiko arazo esaten dutenei aurre egiteko, beraien tokian jarri beharra dugu. Jakina, hemen arazo ugari dago, baina horrek ez du esan nahi hangoen egoera ahaztu behar dugunik. Gure planteiamendua hau izen behar da: arazo bat daukat hemen, eta beste bat han; nola

.....

*"Arrasaten bizi
garenok zortea
dugu,
zuzen-zuzenetik bizi
ahal izan dugu
hemen gertatu den
aldaketa"*

konponduko ditut? "Zertarako lagundu behar diezu? betikoak bidaltzen zaien guztia-ekin geratzen dira eta" esanez norbaitek elkartasun eza aldarrikatzen duenean ere beraien tokian jarri beharra dugu. Gauza horiek ere gertatu izan dira, baina gaur egun garrantzia txikiagoa dute, ONG-ak hor daude eta, Harreman Arrasateko Hirugarren Mundu Taldearen modukoak, garapen proiektu fidagarrietan laguntza emateko.

Pobrezia nagusi den herrialdeetara, aipatutako garapen proiektuen bidez, errekurtsio materialak eramateko aukera dugu. Eta batez ere formakuntza eta gaikuntza errekurtsioak, giza-baldintza onenetan beraien izan daitezkeen bere etorkizuna prestatzeaz arduratuko direnak.

Arrasaten bizi garenok zortea dugu, zuzen-zuzenetik bizi ahal izan dugu hemen gertatu den aldaketa. Seguru batek baino gehiagok gogoratzen duela lanbide eskola bat eraikitzeke emandako dirulaguntza, bertara ikasle guztiak joan zitezkeen, kooperatibismoaren sorreraren eragile zuzena izan arte. Nork imajina zezakeen orain 50 urte?

Beste behin "Arrasate martxan dago" garapen proiektu baten parte hartuz. Harreman Cochabamba-Bolivia eta Bukavu-Zaire proiektuekin ari da eta ekintza horietan parte hartu nahi duten guztiak taldera etortzeko gonbitea egin nahi diegu. Zalantzaren bat baduzu, jar zaitez beraien tokian.

* **HARREMAN TALDEKA**

USTEAK USTE

ANGULEKIN BUELTAKA 26.000 pta. angula kiloak. Gurean ez ditugu jango, seguru. Astakeria galanta plater bategatik hainbeste ordaintzea. Hala ere, ohituraren izenean, handikeriarenean akaso, lepoa jokatu-ko nuke auzoan jango dituztela. Ez diet tripa-kominik desio Dena dela, tenedorea ahora eramaten dutenerako badut hemen abisu sorta bat:

1) HARREMAN-ekoen partez, "jaten duzun angula bakoitzarekin gauza asko egin daiteke hirugarren munduan".

2) SENIDEAK elkarte-koen izenean, "asteburuan guk geuk gose greba egingo dugu eta gure neska/mutilek ez dute ganoraz jango".

3) Bakarrik bizi den aguretxo batek "esaiezu halakoei neu ere jarriko nintzatekeela horrelako mahai batean, giroagatik bakarrik".

4) HIESaren txertoaren zain dagoen batek, "makailua jan eta diferentzia ikerketarako eman".

5) Santa Agedako gaiso batek, "26.000 pta. ordaindu? ezta zoratuta ere!".

6) Nik neuk, "ezin janda bazau, utzi apur bat". Ondo, pozik eta umil pasa itzazue.

BEÑARDO KORTABARRIA

**ANBOTOSTE
TABERNA**

• EGUNEKO MENUA
• PLATER KONBINATUAK

ARRATSALDEKO 4ETAN
ETA GAUEKO 10ETAN
BIDEO-FILMEAK

ASTEBURUTAN
GOIZEKO 6ETATIK ZABALIK!

LARREA PLAZA, 2 BEHEA
TFNOA: 79 68 30 ARRASATE

**TXOKO
TABERNA**

*Cure berezitasunak pintxo eta
mokau gozoak*



Argazkikoa **Periko** da eta martizenean Olentzerori Musakolako herri eskolara opariak eramaten laguntzen ibili zen. Periko Eskoriatzako Apotza auzoko Zarratxiki baserritik etorri zen Arrasatera. Behin bertan

bueltatxo bat eman zuen herritik eta gustora ibili zela esan digu baina bere ustez kamioi eta autoek zarata larregi ateratzen dute. Egia esateko Periko ez dago horrelako zaratetara ohituta!



Santamasetako txerri dotoreak Linda du izena eta Garagartzako Elizgarai baserrian egonda aurreko egunetan. Lindak 280 kilo pisatzen ditu, luzea da eta larrosa. Linda txerri emea Arabako hastegi batean egondakoa da eta formalia ei da.



AEK euskaltegiko irakaslek eta ikasleek, gaur egungoak eta aurrekoek, afaria izan zuten ostiralean Hostalean. Guztira 50 lagun elkartu ziren eta jai giroan primeran pasa zuten gaua. Gainera jakin izan dugunez beteranok gazteak baino martxa gehiago ei dute, ezin etxera bidali ibili ziren eta.



Santamañako alkatetzan auzoko neska mutilentzat **opari banaketa** egin zen zapatuan. Gabonak datozela eta, aitzaki

polita bertako neska-mutilei oparirixto bat egiteko. Sari banaketan jakina, aretoa jendez gainezka egon zen.



Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32 / 79 65 54

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Mediatekaren bidez, **CIMeko Junior sailak (8 -14 urte arteko ikasleek), GABON TARJETA TXAPELKETA** bat antolatatu du. Sail honetan, gure ikasle guztiak parte hartu dute. Aurkeztutakoen artean onenak aukeratu dira ikastetxeak ofizialki zoriontzeko.

Gero Mediatekan erakusketa bat antolatu dugu, eta argazkian ikus ditzakezue tarjeta batzuk.

Hemendik, Mediatekako arduradunak, Junior-ko irakasle guztiak eta zuzendaritzak gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu gure ikasleei.

Eta gainera, aukera hau aprobetxatuz, **GABONAK ZORIONDU** nahi dizkiegu ikasle guztiei eta Mediatekako bazkideei.



Rosario Cabello eta **Miguel Torres** sentzat abenduaren 8a egun berezia izan zen. Egun horretan, ezkondua daramaten 60 urteak ospatzeko aukera izan zuten. Horretarako senitarteko guztiak elkartu

ziren. Rosario eta Miguel Montillan ezkondu ziren baina duela 45 urte Arrasatera etorri eta bertan bizi dira gustora. Bikoteak alaba bat eta bi seme ditu. Zorionak eta urte askotarako!



Arrasate Pressek 300. zenbakia ospatzeko egun berezia antolatu zuen ostiralean. Egun osoan ateak zabalik izan zituen arrasatearrei

aldizkaria gertutik eza-gutzeko aukera emanez. 300 zenbakiekin erakusketa bat ere egon zen ikusgai Arrasate Pressen eta arratsal-

dean luntxa antolatu zen. Bisitaren bat edo beste izan genuen eta bat aukeratzekotan San Frantzisko Xabier ikas-
tolako ikasleena.

IZEN PROPIOAK

● AEDk antolatutako Arrasate 95 eta IX. Jokin Zaitegi lehiaketan sari banaketa egin zen asteazkenean. Arrasate 95 lehiaketan sarituak honako hauek izan ziren: **Poesian**, 17-18 urte, Maider Osa. 12-13 eta 14 urte, Ainhoa Zenigaonandia. **Bertsu paperetan**, 15-16 urte, Edurne Unzueta. Akzesita Koldo Balanzategi. **Ipuinetan**; 12-13-14 urte Ane Atxotegi. Akzesita Ainara Bilbao. 15-16 urte Leire Lardizabal. Akzesita Monika Estevez. 17-18 urte Gorka Nin Laskurainek. Helduen artean bi akzesitu banatu ziren, irabazleak Garbiñe Perez eta Roberto Izagirre. **Diapositibetan** lehen saria Gaizka Olabarrieta. Multzorik onena Josu San Migel. **Komikietan** hiru sari. Sari nagusia Leire Fdez Iñurritegi. Akzesita Mikel Ezkurra eta Eber Arregi eta 14 urte beherakoentzat sari berezia Iker Vicente. **Argazkietan** lau sari. Argazkirik onena Juan Carlos Murillo. Multzorik onena Antonio Murillo. Argazkirik onenaren akzesita Agustin Goenaga eta multzorik onenaren akzesita Patxi Xabier Zubizarreta. **Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren lehiaketan** lehen saria bi irabazleen artean banatu zen; Xabier Artola eta Joseba Osa.

Jesus J. Giraldo

Liseriketa aparatua

• Lagun-Aro • PREVIASA • Foru Aldundia • Partikularrak

Astelehenetik ostiralera arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

Gabon jai zoriontsuak guztiontzat.

Loramendi kalea, 6 Eguzki dorrea, 2.B Tfnoa: 79 04 14 ARRASATE

JM Markiegi

Gizonezkoen moda

Jai onak pasa
eta Urte Berri On guztiontzat

Olarte, 2 ARRASATE Tfnoa: 79 15 32




Lore

Lurrindegia

*Ondo pasa gabonak eta
ondo hari urtea!*

Olarte, 10
ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

TITARE



*Jai
zorianak
zan.*

**LENTZERIA
KORTSETEGIA
BAINUJANTZIAK**

Olarte kalea, 6
Tfnoa: 77 10 16
ARRASATE

Zorionak!

Uziarte

SPORT

Olarte, 6
ARRASATE
Tfnoa: 79 27 78

Mitartegarai

JATETXEA

GURUTZE MUJIKAREN pintura erakusketa
Abenduaren 5etik urtarrilaren 7ra

Areantza auzoa • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 17 51

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Hamargarren ihardunaldia.*
- *Protagonistak: Carlos Alberto Amaral eta Francisco Javier Valverde.*
- *Taldeen aurkezpena: Ojo Avisore, Baneuko, Anbotoste eta HLMK.*



Urteko azken ihardunaldia jokatu dute Zaldibarkoek pasa berri den asteburuan. Gabonetan ez da txapelketarik izango eta urtarrilaren 13an berriro jarriko da baloia abian Zaldibar eta Iturripeko kantxetan.

Saso honetan urtero bezala neguko txapelketa aukeratu beharko dute antolatzaileek

eta titulu hori eskuratzeko hiru talde daude lehian: Orlando Piratas, Txeyenex eta Pub People.

Bestalde, gogoratu behar da otsailaren azken asteburuan bukatuko dela lehen fasea. Oraindik aukera duten taldeek neurketa interesgarri eta garrantzitsuak izango dituzte ondorengo asteetan

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

• Txitxinpe •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

Sailkapenak

A taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. Guzt. |
|-------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | |
| Orlando Piratas | 10 | 9 | 0 | 1 | 71 | 29 | 18 |
| Frantziskanner | 10 | 8 | 1 | 1 | 50 | 23 | 17 |
| Sokoakoak | 10 | 7 | 2 | 1 | 70 | 36 | 16 |
| Kamasutra | 9 | 6 | 2 | 1 | 48 | 20 | 14 |
| Arrasate Kirolak | 10 | 6 | 2 | 2 | 36 | 31 | 14 |
| Argi Ibilu | 10 | 6 | 1 | 3 | 36 | 29 | 13 |
| Sortu Informatika | 10 | 5 | 2 | 3 | 54 | 48 | 12 |
| Jotakabau | 10 | 4 | 3 | 3 | 38 | 37 | 11 |
| Totem | 10 | 4 | 2 | 4 | 41 | 36 | 10 |
| D.A Iriztu | 10 | 5 | 0 | 5 | 50 | 39 | 10 |
| Kakajauri | 9 | 4 | 0 | 5 | 29 | 29 | 8 |
| Uglys Txinato | 10 | 2 | 4 | 4 | 31 | 40 | 8 |
| Bukanak | 10 | 2 | 2 | 6 | 39 | 43 | 6 |
| Gualtrapas | 10 | 3 | 0 | 7 | 32 | 57 | 6 |
| Gaztetokoa | 10 | 3 | 0 | 7 | 26 | 67 | 6 |
| Alealee | 10 | 2 | 1 | 7 | 26 | 69 | 5 |
| Toss Tehaman | 10 | 1 | 1 | 8 | 19 | 68 | 3 |
| Tronkoteak | 10 | 0 | 1 | 9 | 2 | 15 | 1 |

B taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. Guzt. |
|-------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | |
| Txeyenex | 10 | 9 | 0 | 1 | 47 | 17 | 18 |
| Fosforos | 10 | 8 | 1 | 1 | 52 | 27 | 17 |
| Hirei | 10 | 7 | 0 | 3 | 42 | 23 | 14 |
| Okoretegi Taberna | 10 | 6 | 2 | 2 | 30 | 15 | 14 |
| DKB | 10 | 7 | 0 | 3 | 40 | 31 | 14 |
| AC Surcos | 10 | 6 | 1 | 3 | 39 | 29 | 13 |
| Adelaida | 10 | 6 | 1 | 3 | 51 | 25 | 13 |
| Lorategi | 10 | 6 | 0 | 4 | 28 | 25 | 12 |
| Ojo Avisore | 10 | 4 | 3 | 3 | 36 | 32 | 11 |
| Los Heredia | 10 | 4 | 2 | 4 | 25 | 27 | 10 |
| 6. Proiektua | 10 | 3 | 2 | 5 | 24 | 31 | 8 |
| Aizpun Bila | 10 | 3 | 2 | 5 | 16 | 27 | 8 |
| Fraguel Gol | 10 | 3 | 1 | 6 | 24 | 30 | 7 |
| Altza Porru | 10 | 3 | 1 | 6 | 29 | 38 | 7 |
| Berango Sukaldeak | 10 | 2 | 0 | 8 | 24 | 31 | 4 |
| Kopyprest | 10 | 2 | 0 | 8 | 25 | 65 | 4 |
| Kirten Tropel | 10 | 2 | 0 | 8 | 13 | 35 | 4 |
| Los Dalton | 10 | 1 | 0 | 9 | 35 | 63 | 2 |

D taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. Guzt. |
|--------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | |
| Ati que te importa | 10 | 8 | 1 | 1 | 41 | 27 | 17 |
| Irati STS | 10 | 8 | 0 | 2 | 44 | 24 | 16 |
| Lautherbrunen | 10 | 7 | 1 | 2 | 68 | 37 | 15 |
| Betrayer | 10 | 7 | 1 | 2 | 50 | 32 | 15 |
| Anbotoste | 10 | 7 | 0 | 3 | 36 | 20 | 14 |
| Ganbelas | 10 | 6 | 2 | 2 | 39 | 26 | 14 |
| Nuevo Taberna | 10 | 5 | 3 | 2 | 54 | 28 | 13 |
| Insert Coin | 10 | 6 | 0 | 4 | 49 | 40 | 12 |
| Trikiti | 10 | 5 | 2 | 3 | 34 | 19 | 12 |
| Los Dimy | 10 | 5 | 2 | 3 | 25 | 28 | 12 |
| Borroch roll | 10 | 4 | 0 | 6 | 35 | 41 | 8 |
| Potosorri | 10 | 2 | 2 | 6 | 22 | 31 | 6 |
| No Comment | 10 | 3 | 0 | 7 | 24 | 37 | 6 |
| Elisabeth | 10 | 1 | 3 | 6 | 21 | 36 | 5 |
| Arrasate Zoo | 10 | 2 | 1 | 7 | 18 | 32 | 5 |
| HMKL | 10 | 2 | 0 | 8 | 26 | 66 | 4 |
| Txarokis | 10 | 1 | 1 | 8 | 34 | 55 | 3 |
| Cons Fercon | 10 | 1 | 1 | 8 | 30 | 71 | 3 |

E taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. Guzt. |
|-------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | |
| Pub People | 10 | 9 | 0 | 1 | 74 | 24 | 18 |
| Aurre Bolie | 10 | 7 | 2 | 1 | 43 | 21 | 16 |
| Zotz Motz | 10 | 7 | 1 | 2 | 38 | 27 | 15 |
| Cerv Leintz | 10 | 7 | 1 | 2 | 36 | 20 | 15 |
| Koka Junior | 10 | 6 | 0 | 4 | 43 | 34 | 12 |
| Danok Lagun | 10 | 5 | 2 | 3 | 35 | 30 | 12 |
| Artzankos Udalaiz | 10 | 5 | 2 | 3 | 30 | 24 | 12 |
| Perrahotsa | 10 | 6 | 0 | 4 | 32 | 28 | 12 |
| MSM Ingenier | 10 | 5 | 1 | 4 | 36 | 19 | 11 |
| Pepelus | 10 | 4 | 1 | 5 | 38 | 34 | 9 |
| Petroleros | 10 | 3 | 3 | 4 | 22 | 30 | 9 |
| Exc Lete | 10 | 4 | 0 | 6 | 34 | 38 | 8 |
| Leya | 10 | 3 | 2 | 5 | 28 | 34 | 8 |
| Carto. Igamo | 10 | 3 | 1 | 6 | 39 | 49 | 7 |
| Ke Oxtias | 10 | 3 | 0 | 7 | 38 | 38 | 6 |
| Kriskibalda | 10 | 2 | 0 | 8 | 22 | 52 | 4 |
| Resakas | 10 | 2 | 0 | 8 | 15 | 46 | 4 |
| Baneuko | 10 | 1 | 0 | 9 | 26 | 81 | 2 |

Emaitzak

A Taldea

Kakajauri 1 - Tronkoteak 0
Arrasate Kirolak 2 - D.A Iriztu 7
Argi Ibilu 9 - Jotakabau 2
Bukanak 4 - Uglys Txinato 4
Orlando Piratas 9 - Alealee 4
Sortu Inform. 3 - Sokoakoak 15
Toss Tehaman 1 - Kamasutra 9
Totem 1 - Frantziskanner 2
Gaztetokoa 4 - Gualtrapas 2

B Taldea

Los Heredia 4 - Fosforos 1
AC Surcos 2 - Adelaida 1
Ojo Avisore 3 - Altza Porru 3
Berango Sukaldeak 3 - Los Dalton 4
Txeyenex 5 - 6. Proiektua 1
Hirei 4 - Okoretegi Taberna 1
Fraguel Gol 2 - DKB 4
Kopyprest 2 - Lorategi 6
Aizpun Bila 3 - Kirten Tropel 1

E Taldea

Exc Lete 5 - Cartonajes Igamo 4
Pub People 7 - Danok Lagun 2
Resakas 3 - Baneuko 7
Zotz Motz 5 - Koka Juniors 4
Pepelus 4 - Perrahotsa 2
Aurrera Bolie 4 - Cerv Leintz 4
MSM Ingenieria Int. 8 - Kriskibalda 9
Artzankos Udalaiz 4 - Ke Oxtias 1
Petroleros 2 - Leya 2

D Taldea

Cons Fercon 3 - Elisabeth 3
No Comment 1 - Ganbelas 3
Anbotoste 6 - HMKL 0
Insert Coin 5 - Trikiti 3
Betrayer 4 - Arrasate Zoo 3
Potosorri 6 - Txarokis 6
Nuevo taberna 5 - Lautherbrunen 6
Borroch Roll 4 - Ati que te importa 7
Los Dimy 0 - Irati STS 8

YOSU HERMIK
VENTANAS AISLANTES

Kalitate gorena leihoeetan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Zubizaneta

GALERIA 44

Denda berezia

Zerkaosteta, 8 Tfnoa: 79 90 50 • ARRASATE

KANTAK

ARRASATE
PRESS

1995EKO
ABENDUA

Hator, hator...

Hator, hator mutil etxera
gaztaina ximelak jatera
Gabon-gaba ospatuzeko
aitaren ta amaren onduan.

Ikusiko det aita barrezka
ama be poz atseginez.

Eragiok mutil
aurreko danbolin horri
gaztainak erre artian
gaztainak erre artian
txipli, txapla plun

Gabon, gaba pozik igaro daigun

Din, dan, don

Din, dan, don
din, dan, don Eguberria,
Jesus jaio zitzaigun
egun pozgarria.

Danok dezagula
jaialdi hauetan
zorion betea
gure etxeetan.

Din, dan, don
din, dan, don Eguberria
gaur ere alaitu
bedi gure herria.

Pakea dadila
gizalegeetan
grazia ugari
gure bihotzetan. Bai!

Dringilin dron

Dringilin dron
gaur Gabon
sabela betea daukat eta
besteak hor konpon.

Mazkelu bete aza egosi
hori, zuri ta gorriak
berehala irautsi neutsazan
azkenengoko orria.

Arin, arin kristauak

Arin, arin kristauak, arin bai Belena
Jesus adoratzera al dan lasterrena.
Zer gertatzen ote da Belengo herrian,
gure Jesus jaio da estalpe batean,
ta haruntz honuntz lasterka artzaiak mendian
elkar bilatzen dira ahalegin guztian
elkar bilatzen dira ahalegin guztian.

Bioliña, txistua, danbolin soinua,
artzaiak jotzen daude atsegin ta pozez.
Hotzak eta beharrak hiltzeko zorian,
estalpe zahartxo batean leku irikian. (bitan).

Arin, arin kristauak...

Olentzero

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.
Aditu duanian
Jesus jaio dala
laisterka etorri da
berri ematera.

Horra, horra
gure Olentzero
pipa ortzian dula
exerita dago.
Kapoiak ere baitu
arrautzatsuekin
bihar meriendatzeko
botilla arduakin.

Olentzero buru haundia
atarramenduz jantzia
bart arratsian
edan omen du
bost erruko zaragia.
Ai urde tripa handia
tra-la-ra-la-la
ai urde tripa handia
tra-la-ra-la-la

Haur eder baten bila

Haur eder baten bila
gabilza zoratzen
ta izarrak esan digu
galdetzeko hemen.

Jaungoikoaren herri
maite Jerusalem
esan zaiguzu laister
Jesus nun jaio den (bis).

Artzai buru txuri bi,
Anton eta Peru,
Belengo estalpera
etorri zaizkigu.
Sartu dira barrena,
Manueltxongana
eskaintza egin diote
arkumetxo bana.
Batek arkumia ta
bestiak ardia;
ondo konpontzen dira
Jose ta Maria.

Horra Mari Domingi

Horra Mari Domingi
begira horri
gurekin nahi duela
Belena etorri.
Gurekin nahi badezu
Belena etorri
atera beharko dezu
gona zar hori.

Atoz, atoz zure bila
nebilen ni (bis).
Atoz goazen adora dezagun
Belenen jaio dan
Haur eder hori (bis)

Xalbadorren heriotzean

Adiskide bat bazen orotan bihotzbera
poesiaren hegoek
sentimenduzko bertsoek antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari bakardadez josia,
hitzen lihoa iruten
bere barnean irauten oiñazez ikasia.

Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina,
mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzana.

Hesia urraturik libratu huen kanta,
lotura guztietatik
gorputzaren mugetatik gake sentitu nahirik.

Azken hatsa huela bertsoetik sakonena,
inoiz esan ezin diren
estalitako egin ohiurik bortitzena.

Eperra

Eperrak baditüzü bere bi hegalak
bai eta bürün gainin kokarda eijerra
zuk ere balinda zünün gaztetasün eijer bat
neskatilen gogatzeko bilho hori pollit bat.

Amorosak behar luke izan lotsa gabe
gaiaz ebiltia ez izan herabe
egunaz ebiltia desohore leike
txoriek ere oro haier sor dirade.

Ebili izan nüzü gaiaz eta beti
heien atzeman nianez lili eijer hori
azkenian atzeman düt oi bena tristeki
lumarik eijerrena beitzairo erori.

Txalaparta

Tiriki-trauki
hiru ta lau dira zazpi,
xumuxumurru
bat batean dira urrun,
tiriki-trauki
ezker eskubi
bien artean dago zubi,
hots bare-bare
hor leino sare
hiru ta lau dira bi...
hiru ta lau dira... bat.

Euskal Herrian Euskaraz

Euskal Herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.
Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntza har dezan arnas.
Bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara
hitzegiterik ez bada
bota dezagun demokrazia
zerri askara.
Geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.
Hizkuntza gabe esaidazue
nola irtengo naizen plazara,
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna
irabazteko eguna
pazientzia erre aurretik
behar duguna,
ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?
Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena.
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?

Santamasetako kantua

Gizendu jaku txarrixa
Saltoka dabil herrixa
aintxinako iturrixa
umore barri barrixa.

Talua, arto uruna
eta baserriko lanak
erakusten bagabiltz baña
lekutan daz horreik danak.

Sasoi bateko ohiturak
etortzen jaku gogora
tertulian egoteko
bazan nahikua denpora.

Orduko erromerixak
dantza suelto eta arda
haze zan jaixa sanua
oin barriz dana libre dau.

Goizeko euri artian

Goizeko euri artian
aterkinarik gabe
eskuak sakelean
pena bat bihotzian,
etxetik urruti nago
kaleetan bakarrik
goizeko euri artian
kitarra bakarrekin.

Lagun bat hartu behar dut
gaur zerbait bazkaltzeko
inork ez nau hartu nahi
arrotza naizelako,
kaleetan abestu ditut
nere herriko kantak
jendeak zerbait utzi du
goizeko euri artian.

Ez horrela ibili
neskatxak esaten dit
hobeki hemen bizi
gu biok elkarrekin
Batzutan galdetzen diot
nere buruari
zertarako naizen hemen
zergatik ari naizen
betiro kezkatzen.

Baina aurrera jo behar dut
bidea hartu arte
bakarrik izan behar dut
hori iritsi arte.
Eta egunen batian
pozik ikusiko dut
iguzkia agertzen
goizeko euri artian.

Itauna

Maitatzen bazaitut, itaundu dautso
leyuan klisk dabin ilargi-izpi jani.
Larrosa zuriko txindor kantubari
hitza hartu ezinik gaba igaro doza.

Axiari itaundu dautsozu legunkia
berala baina jolas dabi zure ulian.
Ete dakije ezer ixarren unian?
Mosu dagitzube gustijak kutunkia.

Itaundu dautsozu zeru garbijari,
itxasoko uinai ta ixadi orori.
Maitasun orretzaz baina, maite hori
ez dautsozu itaundu zeure bihotzari.

Ameriketara joan nintzan

Ameriketara joan nintzan
zentimorik gabe
handik etorri nintzan maitia
bost milioien jabe.
Txin, txin, txin, txin,
diruaren hotsa,
hareTxek ematen dit maitia
bihotzian poza.

Izarapean

Izar azpian mundua dago
izarapean zerua
zure laztanen haize hegoan
galtzen da nire burua

Errekastoak ur murmurio
itsas handiak orru
zentzu guzien zoramenera
muxuz-muxu, larruz-larru

Kimuarena ote lorea
ta fruitua lorearen?
elkar urtuaz jakin nahi dugu
ni zu naizen, zu ni zaren

Su gar harroa iraungitzean ilintiak gori dirau
ase ondoko lotan gautzala
ailedi betirako gau!

Aitormena

Ez dira betiko garai onenak
azken finean gizaki hutsak gara
barearen ostan dator ekaitza
udaberri berririk ez guretzat.

Denborak aurrera etengabean
eta orain ezin eutsi izan ginena
rutinaren morroiak bihurtu gara
laztana, lehen baino lehen aska gaitezen.

Ohartu gabe arrunt bilakatuta
ohartu gabe heldu gara mugara
mundua jausi zaigu gainera
maitia, lehen baino lehen aska gaitezen.

Ez dakigu non dagoen hoberena
bila dezagun beste lekuetan.

Bai, zin dagizut ez dizudala inoiz
gezurrik esan eta, zaude ziur
ezin izango zaitudala ahaztu inoiz.
Aitortzen dut,
izan zarela ene bizitzaren onena
baina, orain maitia
lehen baino lehen aska gaitezen.

Lau teilatu

Hemen gaude
ta poztutzen naiz
zihur, zure aita ere bai
ta zer, ondo... zelan dihoa
zure bufanda txuria.

Lau teilatu gainean
ilargia erdian eta zu
gorutz begira
zure kea eskuetan
putzara batekin... putz!
neregana etorriko da
ta berriz izango gara
zorionsu
edozein herriko jaietan.

Goxo goxo
kanta egin nazu
Benitoren Maria Solt
ez negarrik egin
zuri zaude eta malkoak
zure kolorea kentzen dute.

Lau teilatu...

Felix Felix bihar
berriz izango gara
txanpain apur batekin
diru gabe bainan
izarrak gurekin daude
piano baten soinuaz.

Aita Semeak

Aita semeak tabernan daude
ama alabak jokoan...

Berriz ikusi beharko dugu
behi gizona auzoan
berriro ere ez da faltako
trapu zaharrik kakoan.

Hondamendia gertatu zaigu
geure etxean horrela
guztiok bizi nahi dugu baina
nola biziko bestela.

Geurea dugu erru guztia
geurea dugu osoan
ezin hori ba errua bota
Euskal Herria hiltzean.

Baina gaztea naiz eta daukat
etorkizuna eskuan
ez zaigu hilko Euskal Herria
ni bizi naizen artean.

Begiak parrez parrez

Begiak parrez parrez
bihotza negarrez
halaxe joaten nintzen maitia
zugandik doloz.

Ama zuriak neri
parean pasata
ez dit agurrik esan maitia
burua jirata.

Amak zuriak neri
hori egiteko
zer palazio dauka maitia
zuri emateko.

Palazio eder bat
haitzearen gainean
ez da haizerik sartzen maitia
ez dabilenean
ez da euririk sartzen maitia
aterri denean.

Urtxintxak

Urtxintxak oihanian
jauzika
aldaxkatik aldaxkarat...
"Zuk erradazu, ama
zendako
ez diren erortzen lurrerat?..."

"Nik ere nahi nuke izan
urtxintxa bezala!
hain gora, hain trebe,
izaiteko libre!..."

Urtxintxak oihanian
zintzilik
Buruz behera buztanetik!...
"Zuk erradazu, ama
zendako
ez duten buruko minik?..."

Urtxintxak oihanian
karruxakaz
Neguko bildu eltzaurrekin
"Zuk erradazu, ama
zendako
ez dezaketan egin berdin?..."




ARIANE

**Emakume eta
gizonezkoetan
barruko jantzietan
espezialistak**

*Gabon
zoriontsuak eta
urte berri on!*

**Erdiko Kale, 14
ARRASATE
Tfnoa: 79 27 33**




PANADERA M/C
1995eko abenduak 22

arregl s

*Arropa konponketa
Neurriko jantzigintza
Larruzko jantzien konponketa
Gortinak
Brodatuak*

Jai zoriontsuak!

Eroskiko Galeria Komertzialak

Protagonista**Carlos Alberto
Amaral
Construções
Fercor**

— Nola doa txapelketa?

— Txarto, partidu asko galdu dugu eta gaizki sailkatuta gaude. D taldeko azken tokian gaude hiru punturekin. Gaur arte 8 partidu galdu ditugu, bakarra berdindu eta beste bat irabazi.


— Ez duzue entrenatzen?

— Eraikuntzan lan egiten dugu eta ez dugu denborarik ez entrenatzeko ezta prestatzeko ere. Askotan zapatuan ere lan egin behar dugu eta arazoak izaten ditugu taldea osatzeko orduan. Behin baino gehiagotan lau jokalariz jokatu dugu bosteko taldea

osatzea ezinezkoa egin zai-
gulako.

— Beste taldeak zuena baino hobeto prestatuta daude?

— Bai, beste taldeetako jende gehiena gaztea da, ikasleak, eta gu baino aukera gehiago dute hobeto ibiltzeko.

Protagonista**Francisco Javier
Valverde
Elisabeth**

— Nola daramazu txapelketa?

— Iaz baino hobeto. Hala ere, gatxa ikusten dugu edo ia ezinezkoa bigarren fasera pasatzea. Une honetan D taldeko 14. tokian gaude 5 punturekin. Sei neurketa galdu ditugu, hiru berdindu eta bakarra irabazi. Gure sailkapena ikusita, aurrera jotzeko itxaropenik ezin eduki!

— Bigarren fasea ez lor-
tzea gogorra da?

— Gogorra ez. Hala ere, lortuko bagenu asko poztuko ginatke baina Zaldibarren daramagun urtetan horrelakorik egin ez dugunez ez zai-
gu gehiegi axola. Gainera esan behar dut gure helburua ondo pasatzea dela eta ahal bada irabazi, baina ez gatz

lehen postuen bila. Gero gau-
zak ondo irtetzen badira pri-
meran.

— Zaldibarren edo Iturri-
ripen, non gustorago?

— Zaldibarren hobeto jokutzen da, handiago da eta lasaiago ibil zaitezke. Hori jokuari dagokionez baina giro aldetik ere gustokoago dut Zaldibar.

— Nola dago osatua Eli-
sabeth taldea?

— Portugesez berba egi-
ten duzue?

— Portugaldarrak gara, taldeko kide bi izan ezik gai-
nontzekoak eta gure hiz-
kuntzan hitzegiten dugu. Por-
tuges hitzegiten entzutea
beharbada arraroa egingo zai-
zue baina hori da gure ama
hizkuntza.

— Nola animatu zine-
ten txapelketan parte har-
tzera?

— Zaldibar txapelketa
zegoela jakin genuen. Fut-
bola guztion gustoko kirola
denez, taldea osatu eta
hementxe gaude. Nire aita-
ren eraikuntzaren izena jarri
genion taldeari eta azkenak
goazen arren, esperientzia
polita izan da guretzat. Dato-
rren urtean aukera badugu,
berriro parte hartzeko gertu
gaude.

— Koadrilakoak gara.
Duela lau urte Santamainako
txapelketan hartu genuen
parte, gustora ibili ginen eta
hurrengo urtean Zaldibarren
eman genuen izena. Beraz,
hiru urte daramatzagu txapel-
keta honetan eta aurtengo
onena izan dela esan
behar.

— Taldeen artean sor-
presarik?

— Sorpresa Trikiti talde-
ak eman dit. Aurreko txapel-
ketetan oso ondo ibili da
baina aurtan ez dakit talde-
ko jokua jeitsi egin delako
edota talde hobeagoak dau-
delako ez dabil hain fin. Bes-
talde, faboritoak urteroko tal-
deak izango dira Fosforos,
Adelaida, Sokoakoak ere
indartsu dator. Baina orain-
dik goiz da faboritoen gainean
hitz egiteko bigarren fasea
bukutzen denean orduan
jakingo dugu guztien artean
zein dabilen hobeto.

Labur**■ BESTE TXAPELKETA
BAT**

ZALDIBARKOENTZAT
Futbitoko federa-
kuntzak futbito txapelketa berezia anto-
latu du Gabonetarako
eta Zaldibarkoek
Bergara eta Ondarru-
ko taldeekin batera
bertan hartuko dute
parte. Txapelketan
parte hartzeko Zaldi-
barko antolatzaileek
jokalaria onenekin
selekzio bat osatu
dute. Aukeratutakoak
hauek dira: Luma (Argi
Ibili), Iker Balzategi
(Sokoakoak), Nando
(Cerveceria Leintz),
Entxo (AC Surcos),
Roberto Carabias
(Txeyenex), Ritxi
(Aizpun Bila), Aitor
Balzategi (Aizpun
Bila), Carrillo (DKB),
Unai Idigoras (Irati
STS), Jon Madinabei-
tia (Adelaida haizea).
Atezainak: Dabid
Zaitegi (Irati STS) eta
Eduardo San Vicente
(Adelaida Haizea).
Hauek guztiak bilera
izango dute 23an
larunbatean, arratsal-
deko 7.30etan Txoko
tabernan.

■ GOL UGARI

10. ihardunaldian
270 gol sartu dira
guztira. Sokoakoak
taldeak goleada
handiena lortu du
Sortu Informatikari 15
eta 3 irabazi eta gero.
Kamasutrak ere
astindu galanta eman
dio Toss Tehamani, 9
eta 1 bukatu zen
partidua. Hala ere,
jokatu izan den neur-
keta onena Aurrera
Bolie eta Cerveceria
Leintzen artekoa izan
da.



Ojo Avisore



Baneuko



Anbotoste



HLMK

Alboka ikastaroa

Urtarriletik apirilera

Larunbat goizetan

- 10-11
- 3 ordutegi • 11-12
- 12-13

Matrikula 2.000 pta (1.000 ikasle eta langabetuentzat)
izenemateak: **Gazte Bulegoan 77 00 65**



ARRASATEKO UDALA

gazteria ■
saila ■
■



Ecco, estatuan eta atzerrian bulegoak dituen multinazionala da. Arrasateko bulegoak irailean zabaldu zituen ateak.

Aldi baterako lanean

Maria Agirre

**Lana aurkitu nahi zue-
nak orain arte bi aukera
zituen: INEMen izena
eman eta itxaron edo
enpresetako ateak jo. Ia
bapatean, berriz, beste
aukera bat aurkeztu da:
ABLE edo aldi baterako
lan enpresetara joatea.**

**Enpresa horiek jai-
direnetik, langileek horra
ere jotzen dute lan bila
eta enpresari askok ber-
tan aurkitzen du beha-
rrezko langilea.**

Aurrez ere eza-
gutzen ziren,
baina iaz, aldi
baterako lan
enpresen ihar-
duera arautzen duen legea
irten zenetik, enpresa hauek
perretxikoak bezala ugaltu
dira. Adibide garbiena Arra-
saten dugu. Oso denbora gu-
txian, lau enpresa zabaldu
dira. Lehena ECCO izan zen.
Laborman, Lanbila eta Biko-
lan enpresak beranduago
zabaldu ziren.

Guztiak Arrasaten koka-
tzea erabaki dute baina hemen-

dik inguruko herrietako lan-
gile eta enpresarietara eskaintzen
diete zerbitzua.

“PERTSONAL DEPARTA- MENTUAK”

“Aldi baterako lan bule-
goak makro pertsonal departa-
mentuak dira”. Tomás
Soroa, Arrasateko Bikolan-en
arduradunaren berbetan, lan-
tegi askok ez du pertsonal
departamenturik, eta langile
bat behar duenean ezin da
deialdia egiten hasi. “Guk,
gure datu basean dauden lan-
gileak lehenbailehen euren

enpresan lanean jartzeko auke-
ra ematen diegu”. Bikolane-
ko arduradunaren konpara-
ketak, enpresa horiek zelan lan
egiten duten jakiteko balio
dezake. ABLEtan izena ema-
tea dohainik da. Lana aurki-
tu nahi duenak ABLEan curri-
culuma uzten du, eta hortik
aurrera itxaron. Bulego ba-
tzutan elkarrizketak eta test
psikoteknikoak ere egiten zaie.
Enpresariren batek norbait
kontratatzeko nahia azaltzen
duenean, datu basea zabaltzen
da eta baldintzak betetzen
dituen langilea aukeratu.

ABLEak hala ere ez dira enpresariaren zain egoten. Bulegoko komertziala enpresetara joaten da eskaintzen duenaren berri ematera, eta era horretan lortzen dira kontratu gehienak. Itziar Eraña, Lan Bilako arduradunaren ustez, horrek bereizten ditu ABLEak eta INEMa. "Lan egin nahi dutenen izenak jasotzeaz gain, gure komertziala kontratuak lortzen ahalgintzen da. INEMen funtzioa lana egin nahi dutenen izenak jasotzea da besteak beste".

ESKAERA-ESKAINITZA ETA ABANTAILAK

Kualifikazio desberdineko langileek ematen dute izena ABLEetan, baina Arrasateko bulegoetako datu baseetan dauden asko eta asko lizentziatuak dira. Eskaera, aldiz, beste bide batetik doa. Biltegietako langileak, mezulariak, harreragileak, peoiak eta torneroak kontratatzen dira gehien. Alazne Mendialdua, ECCOren arduradunaren esanetan, "momentu konkretu batean produkzioa aurrera ateratzeko langile beharra dutelako jotzen dute enpresariak guregana. Enpresariak esperientziadun jendea eskatzen dute, lehen momentutik produktiboak izango dena". Gema Otaduy, Labormaneko arduradunaren ustez, "egia da batez ere mekanikoak, elektrizistak edo igeltseroak eskatzen dizkigutela, baina ohitura faltak ere eragin du. Administraria gaisotzen bada enpresariak ez du pentsatzen ordezkorik aurkitzea eta lana pilatzen uzten du. Produkzioan, berriz, aldearantziz gertatzen da".

ABLEen eskaintzak izan ditzakeen abantailak aipatzean, flexibilitate hitza aipatu behar da lehenik; ABLEek enpresa batera bidal dezakete langilea enpresariak nahi duen denborarako. Bigarrenik azkartasuna, egun bate-



Eccoren arduradunak pozik daude Arrasaten eta inguruan izaten ari diren harrerarekin.

tik bestera aurkitzen dute eta behar den langilea. Kontratuak ABLEak egiten duenez, gainera, enpresariak ez du horretan denborarik galtzen. Bukatzeko, ABLEak bidalitako langilea gaisotzen bada, berehala beste bat bidaltzen du enpresara. Langileari, berriz, lan munduan sartzeko eta esperientzia hartzeko aukera ematen zaio. Lan Bila bulegoak, gainera, "harrituta" daude batez ere adinez nagusi direnei lanean jarraitzeko aukera ematen zaiela eta. Enpresa horrek kontratu asko egin die 50 urtetik gorakoei.

KONTRATUA ETA SOLDATA

Gehienetan aldi baterako kontratuak epe motzerako egiten dira; gutxitan egiten dira sei hilabetekoak. Hori horrela izan arren Arrasateko ABLEtako araberak, gertatzen da langile bat euren bidez lanean hastea eta ondoren enpresariak kontratatzea.

Bestalde, "kontratu edozein enpresatan egiten den modukoa izaten da" dio Gema Otaduy-k. "Gizarte Asegurantzia ordaintzen dugu eta langileek indemnizazioa jaso-

tzeko aukera izaten dute".

Soldata arautzeko, aldiz, iaz onartu zen konbenio estatala dago. Konbenio horretan, ABLEek langileari ordaindu beharreko gutxieneko soldata zein den finkatzen da, eta kopuru hori derrigorrez ordaindu behar zaio. Horrez gain, soldata zertxobait igotzeko alokairu osagarria dago baina bulego bakoitzak erabakitzen du langileari zenbat gehiago ordaindu. Horregatik gerta daiteke lan berdinagatik ABLE batek gehiago ordaintzea eta beste batek gutxiago.

"ABLEok enpresariari kobratzen diogu, ez diogu langileari dirurik kentzen". Elkarrizketatu guztiek argitu nahi izan dute gai hori. Enpresariari kobratzen zaionetik zati bat langileari ematen zaio, eta zerbitzu bat eskaini dutenez beste zati bat eurek jasotzen dute. Konpetentzia guztiz askea denez, gainera, bulego bakoitzak eraba-

kitzen du euren dako zenbat jaso. Zapata berdinak denda batean aldamenekoan baino merkeago aurki daitezkeen moduan, ABLE baten bestean baino gehiago kosta daiteke langilea kontratatzea. Arrasateko bulegoetakoek diotenez, hala ere, batetik bestera desberdintasuna ez da handia.


Sindikatuak salatu izan dute lan berdinagatik ABLEtako langileek besteak baino gutxiago kobratzen dutela. Ezin da ukatu, kasu gehienetan horrela izaten da. Izan ere, metalaren konbenioa eta ABLEena oso desberdinak dira, jakina ABLEena askoz txikiagoa.

Arrasateko bulegoetako arduradunaren ustez, konbenio estatalak ez du honako balio hemengo bitzta maila altuagoa da eta. Euren ustez, egokiena Euskadirako konbenioa egitea litzateke eta horrela uxatuko lirateke ABLEen inguruan dauden mamu asko.

"Aldi baterako enpresariari kobratzen diogu, ez diogu langileari dirurik kentzen"

Zer diote sindikatuek?

Egia esan, sindikatuek ez dute begi onez ikusten aldi baterako lan enpresen iharduera. Hona hemen lau sindikalisten iritzia.




Aldi baterako lan enpresek izugarriko zerbitzua egiten diote kapitalari, langileen eskubide eta soldaten murrizketan duten eraginagatik.

Aldi baterako enpresen kontratua duten langileek gainontzeko langileek adina lan egiten dute, baina erdia kobratuz. Gainera, enpresa kontratatzailearen aurka ezer ez erreklamatzeko konpromezua hartu behar dute, bestela ez dizkiete kontratuak berritzen eta.

Legez tatu direnetik, lan munduan beste edozein erakundek besteko garrantzia edukitzera heltzen ari dira aldi baterako enpresak. Arratsen lau ofizina zabalik egotea horren adierazgarria da.

Sindikatuaren eginbehar handienetakoa, ABLEi aurre egitea eta lantegietan aldi baterako lan enpresen bidez kontraturik ez egitea izan behar da. Hala ere, lantegietan kontrato horiek itozteak ez du esan nahi horien menpe dauden langileekiko elkartasunik ez adieraztea. ABLEk negoziarik ez badute, salerosten dituzten langileak orain arte bezala enpresa produktibok kontratatuko dituzte zuzenean.

**JUAN RAMON GARAI,
LANGILE KOMISIOAK**




ABLEn helburu nagusia, langabezian dauden pertsonak merkatalgaiak balira bezala tratatuz etekin ekonomiko handiak eskuratzea da. Enpresa horiek hedatzeak, behin-behinekotasuna eta segurtasun eza ekartzen du eta mugimendu sindikala ere zatitu egiten da.

Ez da egia beste estatu batzuetan ABLEn bidez kontratatutako langile kopurua handia denik. Ez da egia, gainera, era horretako enpresek inplegua bultzatzen denik.

Aldi baterako enpresen bidez lanean hasten diren langileek, gainerako langileekin konparatuz desberdintasunak izaten dituzte: alokairu txikiagoa, gizarte babesik ez, gaisotasun eta langabeziarena aurrean segurtasunik eza.

Enpresa horiek gazteriari, luzaroan langabezian daudenei eta emakumeei eragiten die batez ere. Bestalde, nahi beste ordu sartzeko aukera ematen dutenez, lan banaketa ere eragozten du.

**JON ALUSTIZA,
LAB**



ELA aldi baterako lan enpresen aurka dago. Horregatik, indar nahikoa dugun enpresetan kontratu horiek ez egitea eskatzen dugu, eta askotan baita lortu ere.

Aldi baterako lan kontratuak European ere egiten dira baina beste arrazoi batzuegatik; adibidez, amatasun edo oporrek eraginda beste langile bat hartu behar denean. Europako kasuan aldi baterako langileek baldintza berdinetan dauden beste langileek adina kobratzen dute, eta lan baldintzak ere berdinak izaten dira gutziendako.

Estatu espainiarrean, alderantziz egiten da. Hemen aldi baterako enpresek beste enpresa batzuekiko kontratuak egiten dituzte. Horrela, enpresek ez dituzte konbenio kolektiboetan eta legislazioan datozen arauak bete behar. Aldi baterako langileei gutxiago ordaintzen zaie eta merkantziak balira bezala, gizakiekin "trafikatzeko" da.

ELA gutxienero baldintza batzuen alde dago eta horregatik, enpresek langileak zuzenean kontratzea eskatzen dugu.

**LUIS MIGUEL SAINZ,
ELA**



UGTen ez dugu enpresa horiekiko iritzi onik. Aldi baterako enpresek kontratzen dituzten langileek oso egoera txarrean egiten dute lan. Euskadin metalean dugun konbenioarekin konparatuz, gainera, aldi baterako enpresen konbenioa oso eskaxa da. Horregatik, langileek askoz ere gutxiago kobratzen dute eta ordu gehiago sartu behar izaten dute. Aldi baterako kontratua duten langileek prekarietatean egiten dute lan.

Gure ustez langileak enpresariak kontratatu behar ditu zuzenean; horrela, aldi baterako enpresetara joaten den irabazia langileen soltara joango da eta.

UGTk sinatu egin zuen aldi baterako enpresendako estatuan egin zen konbenioa, baina horrek ez du esan nahi enpresa horien iharduera begi onez ikusten dugunik. Konbenioa ezer ez edukitzea baino hobea da, baina aldi baterako langileek jasaten duten esplotakuntza ezin dugu onartu.

**SALVADOR PEÑA
UGT**



J

gandean 40 urte beteko dira argazki hau atera zenetik. Acción Católicaak antolatu zuen Belen Bizia, karroza batean jarri eta herrian zehar ibili ziren argazkiko umeak, aingeruak batzuk eta Belengo estalpeko bizilagunak besteak.

Karroza hura Zerrajerako aprendizaren eskolan egin zen.

Goian ezkerrean, San Joseren ondoan, Mari Carmen Ayani dago. San Jose bera, Antonio Atxa da. Berrito ezkeraldera begiratuz gero, erdiko

lerroan Estibaliz Arzamendi dago eta bere ondoan Juan Mari Garro. Lehen lerrokoak berriz, honako hauek dira: Angel Atxa, Jose Luis Diaz de Villafranca, Mari Nati Martinez, Kontxi Ugalde amabirjina eta Txaro Velez de Mendizabal.

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Doktoa**

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

BERGARA PIEL

JAI ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON!

Jantzi ezazu zure oparia larrurik onenarekin.
Gainera 500.000 pta. irabaz dezakezu zure erosketa BERGARAKO
DENDARIEN ELKARTEKO (BEDELKAR) denda baten egiten baduzu.

Espaloia, 6 • BERGARA • Tfnoa: 76 20 70

EGUN BEREZI HAUETAN, BITXI BAT ZURE MAITASUNAREN
ADIERAZGARRIRIK FIDEL ETA IRAUNKORRENA DA.

Jai zoriontsuak eta urte berri on!



Iturriotz,33 • ARRASATE • Tfnoa: 77 07 41



Sebero Altube, 7
ARRASATE
Tfnoa: 79 86 15

**URTE BERRI
ON!**



**Eskerrik asko
zuen
konfidantzagatik!**

SABURDI

urdaitegia • harategia



1960tik, gaur zuri bitxi eta erlojugintzan katalogorik zabalena eskaintzeko

ZUBIAGA
Kale barria, 18
20560 OÑATI
Tfnoa. 716074

bitxitegia

ZUBIAGA
Maalako Errabala, 5
20500 ARRASATE
Tfnoa. 791925 - Faxe 791489

Z E R N A H I A G O ?

Maite Barandiaran Santamasetako talogilea



- Noiztik Santamasetan taloa egiten? Duela 4 urtetik.
- Non ikasi zenuen? AEDn.
- Lan nekeza da Santamas goiz osoa taloa egiten pasatzea? Ez, kontrakoa; primeran pasatzen dut!
- Baserritar jazten zara? Bai, jakina.
- Zenbat denbora behar izaten duzue talo bat egiteko? 15 bat minutu.
- Badaukazu sekreturik? Ez, gogoz eta maitasunez egitea besterik ez.
- Zerez betetzen dituzue? Txistorraz eta tozinetaz.
- Ze ordutatik ze ordutara egoten zarete taloa egiten? Goizeko 10etatik 2 t'erdietara gutxi gora behera.
- Zer da Santamas egunetik gehien gustatzen zaizuna? Azoka.
- Arrasateko jairik politena ote? Niretzat bai, oso berezia da eta.
- Gabonak alai ala triste jartzen zaitu? Alai; oso gustoko ditut.
- Non ospatuko dituzu? Arrasaten.
- Zer moduzkoa izan da amaizera doan urte hau? Niretzat nahiko ona; suertatu zaizkidan arazoei aurre egiten jakin diet.
- Zer eskatuko zenioke datorren urteari? 95a bezain ona izatea.
- Txokolatezko turroia ala gogorra? Txokolatezkoa.
- Zer iruditzen zaizu Gabonetan kaleak apaintzea? Ondo iruditzen zait, baina bakarrik erdialdea apaintzen dute eta gainontzeko auzoak nahiko triste geratzen dira alde horretatik.
- Zer prestatuko duzu Gabon Zahar afarirako? Entremesak eta makailari.
- Diru asko gastatzen duzu? Ez, Gabonetako kontsumismo kontu hori asko neurtzen dugu etxean.
- Zer eskatu diozu Olentzerori? Errealeko poster berria.

LABURRAK

Kontxita Zarraoaren margoak ikusgai

Santamas jai egitarauaren barruan, Kontxita Zarraoa Altuna margolari arrasatearraren erakusketa zabaldu zen abenduaren 15ean Harrési Aretoan.

Urtarrilaren 7ra arte, margolari arrasatearrak egindako 35 oleo ikusgai daude bertan.

Kontxita Zarraoak Julio Galartarekin ikasi zuen margotzen eta berak esaten duen moduan, "berari zor diot dakidan guztia".

Erakusketa asko jarri dituen arren, Arrasaten egiten duen lehena da hau. 1980. urtean Gipuzkoako Margolarien Erakusketa Nagusian aukeratua izan zen eta berak margotutako 2 koadro beste hainbat margolari gipuzkoarrekin agertu ziren erakusketa batean. 1989an aipamen berezia jaso zuen Arrasaten eta 91an Arrasateko erakusketa-aren akzesita lortu zuen. 92an aire libreko lehen saria irabazi zuen Kontxitik eta duela gutxi 22 lan aurkeztu ditu Elorrión taldeko erakusketa batean.



ZABALA

OINETAKOAK

Zatoz urtarrileko beherapenak ezagutzera!

Gabon zorientuak eta urte berri on!

Erdiko kale, 18 behea Tfnoa: 79 14 27 ARRASATE



Argazkikoak: Erik, Angel, Jose Manuel Egea Estatuko txapelketa, Iker, Isidor eta Jose Manuel.

Erik Martinek Euskadiko Karate txapelketa irabazi

Euskadiko karate txapelketa kumite eta kata modalitatetetan burutu zen zapatuan Arrasaten. Hasiera batean saioa karate taldeetik sei karatekek hartu behar zuten parte baina jende gehiegi zegoenez lau aurkeztu ziren: Iker Vitoria, Erik Martin, Unai Valor eta Isidor Ugarte. Gazte hauek lan bikaina egin zuten eta emaitza ezin hobek lortu

zituzten. Iker Vitoria hirugarren postuan sailkatu zen 60-65 kilotan junior mailan. Isidor Ugartek ere postu bera lortu zuen 65-65 kilotan juniorretan. Unai Valor, lehen kanporaketa gainditu bazuen ere, bigarrenen geratu zen. Baina guztien artean sailkapen onena Erik Martinek lortu zuen. **Erik lehen postuan** geratu zen 65-70 kilotan kadetetan,

bera izan zen txapeldun handia. Arrasateko ordezkari guztiek kumite modalitatean hartu zuten parte. Orain herriko karatekek beste erronka garrantzitsu bat izango dute. Urtarrilaren 13an Estatuko txapelketara joateko sailkatze frogak jokatuko dira Bilbon. Lau gazte hauek joateko aukera izango dute eta ondo bada-biltza sailkatzeko.

Igeriketa txapelketa Musakolan

Igeriketa txapelketa jokatuko da zapatuan Musakolako kiroldegian arratsaldeko 4etan. Ohiko frogak izango dira. Igerilariek besteak beste 50 metro eta 100 metro-tan hartuko dute parte modalitate guztietan. Azkenean erreleboko beste froga bat egingo dute 10 laguneko taldeak osatuz. Txapelketan Legazpi, Oñati eta Arrasateko 70 igerilari espero dira.

Egin beharrekoa bukatu ondoren, partehartzaileek sariak izango dituzte eta berean txistorra jateko aukera bertan egongo den txoznan. Txozna urtero jartzen dute Santamas txapelketa burutzen denean.

Bestalde, Arrasateko igerilariek Iruña hiria txapelketan hartu zuten parte joan zen larunbatean eta denbora onak lortu zutela esan behar da. Ane Lopez de Bergara eta Ibai Orruño atletadun igeriketan bikain ibili ziren, euren taldekideak bezala.

Santamas krosetako irabazleak

Santamas krosa burutu zen domekan. Urtero bezala jende dexentek hartu zuen parte eta txapelketa maila desberdinetan egon zen banatuta. Mailaz maila honela geratu zen sailkapena:

7 urtekoak Mutilak

- 1- Beñat Otxoa
- 2- Unai Zubizarreta
- 3- Danel Montero

Neskak

- 1- Jaione Martinez
- 2- Eider Roa
- 3- Ione Usobiaga

8 urtekoak 175 m. Mutilak

- 1- Andoni Andres
- 2- Julen Heriz
- 3- Asier Lasaga

9 urtekoak 400 m. Mutilak

- 1- Iban Espinosa
- 2- Unai Beitia
- 3- Ion Lonbide

10 urte 400 m. Mutilak

- 1- Iban Galan
- 2- Xabier Abasolo
- 3- Iban Montero

Emakumeak

- 1- Amaia Ormaetxea

11-12 urte 600 m. Mutilak

- 1- Aitor Mentxaka
- 2- Jordan Barkero
- 3- Mikel Aranbarri

Neskak

- 1- Nerea Zenigaoandia
- 2- Ainhoa Zenigaoandia
- 3- Maitane Iturrran.

13-14 urte 800 m. Mutilak

- 1- Unai Sarabia
- 2- Fernando Nogales
- 3- Jonatan Perez

Neskak

- 1- Maitane Ariz-mendiarrrieta

Koadrila artekoa 6 kl. Mutilak

- 1- Ramon jauroso
- 2- Jabier Mentxaka
- 3- Jesus Lonbide

Emakumeak

- 1- Antonia Patxo

Beteranoak Mutilak

- 1- Francisco Andres

Emakumeak

- 1- M^a Jose Gil

Koadrila arteko sailkapena

- 1- Aretxabaleta
- 2- TC
- 3- Incansables
- 4- Zigarrola
- 5- Triathlon

Zaldibarko koadrilen sailkapena

- 1- Kamasutra
- 2- Sokoakoak
- 3- Koka Juniors

Futbolekoek ez dute atsedetik izango asteburuan

Mondrako emakumeek denboraldiko 14. ihardunaldia jokatu dute Elgoibar taldearen kontra Atxabalpen zapatuan arratsaldeko 3.30etan. Goialdean kokatuta dauden taldeen arteko norgehiagoka izango da eta une honetan Mondra lehen postuan dagoen arren, neurketa galduko balu lidergoa ere bai. Arrasateko emakumeen bila-kaera ikusita, pentsa daiteke ez dutela arazorik izan behar puntuak lortu eta garaipena etxean gelditzeko.

Juanina Garaik zuzentzen duen taldeak oraindik ez du partidurik galdu, eta gol asko sartzeko gauza izan da. Esatebaterako, Almen eta Lizardi taldeei hamarna gol sartu zizkien, UDARI zortzi eta Intxaurren, Hondarribia eta Bergarari zazpi. Gol bakarra Dunboa eta Intxaurren sartu



Mondrak eta Elgobairrek dakiten bezala jokatzeko badute goi mailako neurketa izan daieke.

zient Mondrak. Taldeko pitxitxia Susana Santor da hamasei golekin, Bakartxo Luengok hamabi sartu ditu, Amaia eta Izazkunek bederatziz, Saioa Etxeberria eta Baenak seina,

Goiatz Zabalak lau, Ainhoa Gallastegik bi. Gol bakarra Esti Loiti, Larraitz Madariaga, Elena Markolegi eta Alaitz Perez de Arenazak sartu dute. Sailkapeneko talde gogile-

ena da 69 golekin eta gutxien jaso duena 5. Gaur arteko bidea jarraitzen badu, txapelketa eskuratzeko aukera guztiak ditu Mondrako emakume taldeak.

Hirugarren mailakoek opor barik Zorrotzaren aurka

Mondra taldeak atsedena izan behar zuen asteburu honetan baina epaileek joan den astean egindako greba dela eta, domekan jokatu du Mondrak Zorrotzaren kontra goizeko 11.15etan. Neurketa Bizkaian jokatu da. Zorrotza taldea sailka-

peneko 13. tokian dago 21 punturekin bost neurketa irabazi, sei berdindu eta sei galdu ondoren. Mondrak ez du bururik altxatzen eta sailkapeneko azken aurrekoa da 14 punturekin. Gaurdaino hamaika partidu galdu dituzte, bi berdindu eta lau ira-

bazi. Zivojeciven mutilak ezin dira lokartu eta garaipena lortzeko ganoraz egin beharko dute lan. Taldean hiru baja izango dira. Haritz Zabaleta lesionatuta dago, Aritz Arabaolaza txartelak direla eta, zigortuta eta Juan Carlos Morenori apendizisak

jota ebakuntza egin zioten joan zen astean. Baja garrantzitsuak batez ere defentsatik zelai erdirainoko lanean. Mondrak partidu horren ostean atsedena izango du urtarrilaren 7a arte. Orduan Getxoren bisita jasoko du Atxabalpen.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

Epelde


- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
Tfnoa: 79 19 71

Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 26 23



Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

Juan Ignacio Montiano

Ironiaz idatzitako elaberri poliziakoa

Dagoeneko askok ikusiko zenuten "El Cadaver de Porqueriza" elaberria liburudendetan. Juan Ignacio Montiano 34 urteko arrasatearrak idatzi du liburu hori eta bere lehen elaberria da. Profesioz pediatra, baina kontsultatik ateratzen denean Luis Garcia Otwen pertsonaian murgildu eta istorioak idaztea du gustokoan.

— Nondik datorkizu idazteko zaletasuna?


— Txikitatik daukadan afizioa da baina ez dut senitarteko idazlerik izan. Gazteek beti idazten dute zeozer baina gero utzi egiten diote; nik ordea jarraitu egin nuen, ipuinak etabar idazten nituen. Unibertsitate ikasketak amaitu eta gero, 24 urterekin, lehaketa bateko lehen saria irabazi nuen eta gainera argitaratu egin zen. Górdeta daukat. Poesia batzuk ere argitaratu zizkidaten.

— Zer sentitzen da zuk idatzitako liburu bat liburudendatan ikustean?

— Emozio handia. Liburuaren aurkezpena egin zenean ez nuen beste munduko sentsazioarik somatu baina dendetan ikusi nuenean eta orain edonork erosi dezakeela konturatzean, nire lanak garrantzi bat duela ikusi dut.

— Asko kostatu zaizu argitaletxe batek zure lana erostea?

— Bai. Argitaletxe askotara bidali nuen elaberria baina hitz goxo askorekin bueltatzen zidaten beti. Azkenean, sortu berri den argitaletxe bati nire lana interesatu zitzaion eta hark argitaratu dit lana. Dena dela, kontuan izan behar da "Opera Prima" argitaletxeko editorea ni besteko nobatoa dela, beraz,



oraindik ez dakigu zein arrakasta izango duen argitaletxe horrek... ikusi beharko!

— Zergatik genero poliziakoa? Txikitatik era honetako nobelak irakurtzen zenituelako?

— Ezta gutxiago ere. Gainera, ez dut uste nire liburua genero poliziako seriokoa denik. Argumentua oso ironikoki landuta dago, oso satirikoa da: Liburu poliziakoa izanik oso exageratua dela esan behar da.

Bestalde, idazten ditudan ipuin eta istorio guztietan, protagonista bera erabiltzen dut; Luis Garcia Otwen. Oraingo honetan, Luis Gar-

cia Otweni polizi inspektorearen papera eman diot, beste istorio batzutan bibliotekari edo antikuari izan da ordea. Oso pertsonai dibertigarria da.

— Amaiera kontatu barik, zein da liburuaren argumetua?

— Lehenengo eta behin, liburu honetan hiltzaileak baino hildakoak duela garrantzia esan behar da, hau da, misterioa ez datza hiltzailea nor den jakitean, baizik eta hildakoa nor den asmatzen. Behar bada hori da nobelaren originaltasuna. Historia Soriako Porqueriza izeneko herri tipiko batean gertatzen da, nahiz eta

herri hori errealitatean ez den existitzen. Herri honetako lasaitasuna alkatearen seme-ari norbaitek gaisotasun bat kutsatzen dionean apurtzen da. Domeka da eta alkatea herritik desagertzen da. Gau horretan gorpua bat erreta agertzen da herrian. Inork ez daki noren gorpua den, erreta eta zatituta dagoelako. Astelehenean herrian hainbat pertsona ezagun falta direla konturatzen dira eta orduan Luis Garcia Otwen polizi inspektoreari kasua argitu dezan eskatzen diote. Hortik aurrera ez dut ezer gehiago kontatuko!

— Nori zuzendutako liburua da?

— Umea ez den edonork irakurri dezake gustora. Dena dela, behin "Bruño" izeneko argitaletxe batera bidali nuen eta ume libururik ez zutela argitaratzen erantzun zidaten.

— Ze emaitza espero duzu?

— Bajendeak liburua erosi eta irakur dezala, nola ez. Salmenta momentuz ondo doa; honez gero Hiren 70 liburu saldu dira eta asko dira... baina behar bada nire lagunek erositakoak dira!

— Baduzu beste libururik idazteko asmorik?

— Bai, dagoeneko hasita nago horretan, baina nahia go dut lehenengo liburu honen emaitzak ikustea.

— Aurkituko ote dugu berriz ere Luis Garcia Otwen istorio berri horretan?

— Bai, jakina, baina arazo latzagoak izango ditu. Dena dela, polizi inspektorea izaten jarraituko du... edo mailaz igo eta jefezendatuko dut!

"Istoria honen misterioa ez datza hiltzailea nor den jakitean, hildakoa nor den asmatzean baizik"

Haratuzteetako kartel lehiaketa

Kalean dira datorren urteko haratuzteetarako kartel lehiaketako oinarriak.

Kartelaren neurriak 50 x 70 zentimetrokoak eta formatoa bertikala izan beharko dira. Teknika libre a izango da eta kartelek "1996 Haratuzteak Arrasate" testua eraman beharko dute derrigorrez. Kartelak urtarrilaren 19a baino lehen, Udaletxera bidali beharko dira, bertako Kultu-

ra Departamentura. Egilearen nortasuna azaldu gabe eta atzealdean lema batekin aurkeztu behar dira kartelak; horrekin batera, sobre itxi batean, lema bera eta egilearen datuak adierazi beharko dira.

Epaimahaia urtarrilaren 19an bilduko da irabazlea aukeratzeko eta honek 50.000 pezetako diru saria etxeratuko du.



Gabon tarjeten txapelketa

CIM Juniorrek antolatutako "Gabon Tarjeten Txapelketa"n Maialen Lopez, Ane Zabala, Naia Bailez, Eneritz Zubizarreta, Arantzazu Iriarte, Igor Olalde, Jon Errasti, Tamara Canales eta Maria Uriarte izan dira irabazleak. Saritutako tarjetak ikastetxeak zoriontzeko erabiliko ditu CIMEk. Parte hartu duten ikasle guztien tarjetak CIMEko mediatekan

daude ikusgai.



Santamainako ipuin eta margo lehiaketa

Abenduaren 16an banatu ziren Santamainako ipuin eta margo lehiaketako sariak. Irabazleak hauek izan ziren: Marrazki lehiaketan 8 urte arteko mailan Jessica Agüero, Maider Garcia, Arrate Gallastegi eta Judith Delgado; 9 urtetik 12ra artekoetan Nagore Ipiña, Jessica Lopez, Beatriz Lagullon eta Ane Morales; 13 urtetik 16ra artekoetan Jessica Rico, Leire

Cortes, Ganix eta Agurtzane Telleria. Euskarazko ipuin lehiaketan berriz, 9 urtetik 12ra artekoen irabazleak Nerea Isasti, Itziar Nuñez, Ion Iriarte, Nagore Ipiña eta Jessica Lopez eta 13 urtetik 16ra artekoan Maitane Gallastegi, Dorleta Rodriguez eta Leire Arana. Erderazko ipuin lehiaketan Ivan Arce, Laura Hernandez, Naiara Garcia eta Ruben Davila.

KANPAZAR FIAT

AZKEN BELAUNALDIA TEKNOLOGIAN.



BRAVO

1.4 12v (80 cv, 170 Km/h)
1.6 16v (103 cv, 184 Km/h)
1.8 16v (113 cv, 193 Km/h)
2.0 20v (147 cv, 210 Km/h)
1.9 D (65 cv, 155 Km/h)

ERAKUSKETA:
Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tfnoa 79 77 66



BRAVA

1.4 12v (80 cv, 170 Km/h)
1.6 16v (103 cv, 180 Km/h)
1.8 16v (113 cv, 190 Km/h)
1.9 D (65 cv, 155 Km/h)


TAILERRA
Bizkaia Etorbidea, z/g
ARRASATE
Tfnoa 79 41 98

• ESAERA •

“Bizitzeaz besterik
ardurutzen den pertsona,
ez da bizi”

SOCRATES

• JEROGLIFIKOA •



Euskal musikari ospetsua.

• GURUTZEGRAMA •

| | | | | | | |
|----|---|----|----|----|---|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | | | | | | 9 |
| 10 | | | | 11 | | |
| 12 | | | 13 | | | |
| 14 | | | 15 | | | |
| 16 | | 17 | | 18 | | |
| 19 | | | | | | 20 |

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Bilbao Athleticeko atezain arrasatearra. 8. Bapatean, ezustean. 10. Euskararen Gaitasun Agiria. 11. (Ald.) Ardo nahiz sagardo ona. 12. Kilika egin. 14. (Ald.) Alfabetoko 11. letraren izena. 15. Gizon izena. 16. Piraten edari alkoholikoa. 18. ETXALARKo bokalak. 19. Egoera berean jarraitu. 20. Kilometroaren laburdura.

Bertikalak 1. Iseka egin duena. 2. Erraz mugitzen dena. 3. Xume, umil. 4. Nikela. 5. (Ald.) Neskatala. 6. Hegaztiaren lumen multzoa. 7. Jantzieta agertzen den tolestura. 9. Burdinazko lokarriak. 13. Kasik. 17. Nafarroako ibilgailuetan.

• HOROSKOPOA •

Aries Ahaztu telefonoa. Maite bazaitu, aurkituko zaitu.

Taurus Zure haserrealdiek ez dute ezertxo konpontzen.

Gemini Bizkorregi hitzegiten duzu eta pentsatu gabe.

Cancer Oporrak behar dituzu. Zoaz komentu batera.

Leo Amnesia arazoak dituzu, ezta? Igartzen da.

Virgo Tila edan, barazkiak jan eta Vivaldi entzun.

Libra Jateko makailaua baina entzuteko eta dantzatzeko ere bai?

Scorpio Ideia onak izango dituzu bolada honetan.

Sagitaris Goizetan ezin iratzarri? Irtenbidea: goizago oheratu.


Capricorn Ez etsi. Arazoa korapiltsua da baina aterako zara bertatik.

Aquarius Isilik egoteak ez zaitu interesgarriagoa egiten.

Piscis Maite bazaitu aurkituko zaitu. Ez larritu.

Otxe-Aundi

Torreauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI




Anna de Codorniu

Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

Arrasateko elkarte guztiak "Elkartean" saio berrian

Programa berria estreinatuko du ATBk datorren ostegunean. Elkarteetako giroa gustoko dituen horietako bat bazara, gustora ikusiko duzun saioa duzu hau. Beñardo Kortabarrak zuzenduta eta Tomas Aspe eta Karmele Zuazubiskarrek aurkeztuta, Arrasateko elkarte guztien gorabeherak eta ezaugarriak azaltzera dator "Elkartean" saioak. Astero astero, elkarte bati buruzko programa monografikoa botako da eta elkarte bakoitzak janari bat prestatu behar izango du. Programa guztiak amaitzen direnean,



San Juan jaietarako, finalista geratu diren elkarteak elkarrekin lehiatuko dira. "Elkar-

tean" saio berria ostegunero 9.30etan izango da ikusgai.

KOMIKIA



AMAIA. Ixe-ixa komiki taldea.

PROGRAMAZIOA



22 Ostirala

"Santamasak 95" programa berezia

26 Astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Barrelekaixoka

27 Asteazkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Zinea

28 Osteguna

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Elkartean" saio berria,
Tomas Aspe eta Karmele
Zuazubiskarrek aurkeztuta.
Elkartea: Leintze

29 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

SOLUZIOAK

Jeroglifikoa:
Gurdi.

Horizontalak: 1. Inanol, 8. Suplitrik, 10. EGA, 11. Amam, 12. Kiti-katu, 14. Al, 15. Asier, 16. Ron, 18. Eaa, 19. Traun, 20. Km.
Bertikalak: 1. Isekari, 2. Mugikor, 3. Apal, 4. Ni, 5. Otaksen, 6. Lumaia, 7. Zimur, 9. Kateak, 13. Ia, 17. Na.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etseko gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etseko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

**Guztiz
berriztutako
taberna
salgai
ezin
atenditzeagatik.
Tfnoa: 77 07 80**

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

Etxebizitzak

- **Bi oheko logela alokatzen da** . Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua salgai San Andresen**. Guztiz jantzita eta berogailuarekin. Tfnoa: 79 07 73.
- **Garajea salgai Altamiran**. Tfnoa: 79 70 70.
- **Pisua salgai Erdialdean**. 90 m². Tfnoa: 79 42 13.
- **Garaje itxia alokagai**. Tfnoa: 79 42 13.
- **Pisua salgai Erguinen**. Tfnoa: 77 02 01.
- **Pisua salgai San Andresen**. 65 m² ditu. Tfnoa: 79 53 50.
- **Biltegi bezala erabili daitekeen lokala alokagai merke merke**. Kalealdean dago eta 34 m² ditu. Tfnoa: 79 20 48.
- **Etxebizitza salgai** Pablo Uranga kalean, 8. solairua. Jantzi berria. Tfnoa: 79 55 28.
- **Garaje itxia salgai edo alokagai** Larrea plaza. Tfnoa: 79 39 50. Gaez dei egin

Lana

- **Injinerutzako 1. mailako fisikako klaseak** hartuko nituzke. Tfnoa: 71 50 72. Goizez deitu.
- **Emakumea lan egiteko gertu**. Etxeko lanak edo umeak zaindu. Tfnoa: 79 74 92.
- **Euskarazko 2. eta 3. urratseko klaseak** ematen ditut 7etatik 8etara. Tfnoa: 77 04 98.
- **Euskaraz, ingelesez, gazteleraz** eta beste hizkuntzatan ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Tfnoa: 79 47 54.
- **Umeak zaindu** edo denda baten lan egingo

nuke. Dei egin eguerdian edo gaueko 10etatik aurrera. Tfnoa: 79 95 92. Rakel.

- **Kanguro lana egingo nuke**. Gaez edo egunez eta nahi dituzun orduak. Tfnoa: 79 43 79. Leire.
- **Neska gertu umeak edo gaisoak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 92 86. Ainhoa.
- **Neska gertu etxeko lanak egin** edo umeak zain-zaindu. Tfnoa: 77 07 58. Marisol.
- **Etxean, dendan...** edozein lanetarako gertu. Tfnoa: 79 76 45.
- **Lurra barnizatu** (barniz ekologikoarekin) eta par-keta jartzen dut. Eskatu aurrekontua konpromezu barik. Tfnoa: 71 50 72.
- **Neska prest umeak zaintzeko** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 96 10.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Latinezko klaseak jasoko nituzke**. Tfnoa: 79 94 92. Dei egin arratsaldeko 7etatik aurrera. Pilar.
- **Klinikako eta geriatriako laguntzailea** pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 39 09.
- **Emakume euskalduna prest umeak** edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lana egiteko. Tfnoa: 79 07 73.
- **Ingeleseko klase partikularrak ematen dira**, esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 28 98.
- **Sukaldari lana egiteko gertu**. Tfnoa: 79 04 53 edo 13 36 76.
- **Arratsaldetan umeak zaindu** edo etxeko lanak egiteko neska gertu. Tfnoa: 77 07 58.
- **Neska euskaldun bat umeak zaintzeko prest**. Tfnoa: 79 04 10.
- **Irlandatik etorri berria ingelesezko klase** partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 21 56.

Salerosketak

- **Motorrean ibiltzeko txamarra ia berria salgai**. Gorria, txurria eta beltza. 50 taila. Prezioa: 25.000 pta. Tfnoa: 79 22 19.
- **Trabesiako skia egiteko botak salgai**. Koflach Veluga 43-44 zenb. hiru aldiz erabilia. 12.000 pta. Bolle MicroEdge II eguzki betaurrekoak ski edo txirrinduan ibiltzeko aproposak. 4.000 pta. Tfnoa: 79 02 10. Asteburutan.
- **Hiru urteko fosterrier txakur emea salgai**. Baku-nak eta jarrita ditu. Tfnoa: 79 99 84.
- **Volkswagen Passat diesela edo antzerako ko-txea erosiko nuke**. Egoera onean eta merkea bada. Tfnoa: 77 09 40.
- **P-12 Sanyo bideo kamara salgai**. Berri berria dago, estreinatu barik. 75.000 pta. Dei egin eguerdian 79 51 27 tfnora. Jabi.
- **Baserriko kiwiak salgai**. Etxeraino eramango dizkizugu. 125 pta. kilo. Tfnoa: 79 97 84.
- **Artzai txakur emea oparitzen da**, gaztea da. Tfnoa: 88 75 80.

Denetarik

- **Egunero Gasteiza joaten naiz** goizeko 8etan autoz Lekua dut, beraz, etorri nahi baduzu eramateko prest nago. Tfnoa: 77 02 74.
- **Giltzak zituen txandal urdin bat** (Astora) desagertu zen Zaldibarko futbito txapelketan. Norbaitek berririen bat izanez gero deitu 79 30 76 tfnora.
- **Abenduaren 8an betaurreko graduatuak galdu** nituen Urkulun. Tfnoa: 79 97 51. Jose Ramon.
- **Giltza batzuk galdu nituen** San Andresetik Erdiko Kalerako bidean. Estutxe berde baten barruan daude giltzak. Tfnoa: 77 06 51. Blanca.

Aste Gazte

Bekak

• “Mapfre Medikuntza Fundazioak”, hirugarren adina eta pertsona elbarrituen gaien inguruan, ikerketa bekak deitu ditu. Epea: urtarrilak 31.

Andere programa

• “Novia Salcedo” Fundazioak, “Andere proiektok” garratu du. Proiektu hau “New opportunities for women” enplegu proiektorearen barruan kokatzen da. Baldintzak: emakume diploma-tuak edo lizentziatuak; langabe-tuak (Urtebete gutxienez); 30

urte baino gutxiago; hizkuntzak jakitea kontutan hartuko da. Programak 9 hilabeteko iraupena izango du. Epea: abenduak 29.

Ikastaroak

- **Alboka Ikastaroa**. Urtarriletik apirilera bitartean, larunbat goizetan. Matrikula: 2.000 pta., 1.000 pta. ikasle eta langabetuentzat. Irakaslea: Sergio Lekuona, Gasteizko Udal Folklore Eskolako irakaslea.
- **Hastapeneko “Makilaia eta antzerkirako karakterizazio tailerra”** Arrasaten. 60 orduko irau-

pena. Jorratuko diren gaiak: materialak, zuzenketak, argi ilunak, efektu bereziak... informazio gehiago, Gazte Bulegoan.

Lehiaketak

- **Portugaleteko Udalak** “Portugalete uri urena” X. komiki lehiaketarako deia egin du. Lehiaketa honetan nahi duten guztiek har dezakete parte. Gaia eta Teknika librea. Errotuloak euskaraz nahiz erdaraz idatz daitezke. Epea: urtarrilak 12.
- **“Bilbo Hiria” VIII. Pop-Rock lehiaketa**. Taldeak berak egindako kantez osaturiko errepertoriuma, edozein hizkuntzatan aurkeztu daiteke. Epea: urtarrilak 15.


**“Ez zaitetz adina-
ren atzean ezkutatu,
horrela zahartzen da
eta. Gaztetasuna
bakoitzaren animoan
dago”.**

CARMEN MARTIN GAITE



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

L a g u n a



MECA

Meca, S.A. eta bere
taldearen partez,
Eguberri On eta
1996a urte oparoa
izan dadila.

Zorionak!



Mugarrikin edonora!

Jai zoriontsuak izan.

**Hile honetan
urteko eskaintzarik
onenak!**

MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE • Tfnoa: 79 07 44-54 Faxe: 79 62 54